

# Berriketan



KOOPERAZIO TALDEA

## Debatik mundura elkartasun sarea ehuntzen



## ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -  
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com  
www.asesoriadeba.com  
Hondartza 2, behea  
20820- DEBA (GIPUZKOA)

# adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA  
Hondartza kalea 13 DEBA  
T. 943 19 27 00

ADATS ILEAPAINDEGIAK MUTRIKU  
Behoko plaza 1 MUTRIKU  
T. 943 60 39 45

www.facebook.com/adatsileak  
@adatsileak



## URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

Sokagin kalea 2, behea  
20820 DEBA

**API**  
Nº. 379

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943192 303  
urlo@urlosi.net

SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

Hondartza ondoan  
Urte gustian zabalik

Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576  
20820 DEBA

Sukalde eta etxe altzarien  
erakusketa izugarria  
3000m<sup>2</sup>

Itziariko gaina  
T.: 943 19 91 00  
F.: 943 19 91 01  
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com  
www.mueblesendaneta.com

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249  
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria  
688763289 • inmolhome@gmail.com

Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria  
688763289 • inmolhome@gmail.com

SANTIAGO GARCIA ORDOÑEZ

Abokatu eta ekonomialari elkartuak  
Zerbitzu juridikoak  
670 411 444  
centrolegal@sgobogados.eus

LERSUNDI KALEA 25 - DEBA  
T 608 135 775  
E MAITE. BOHEM@GMAIL.COM

f @

ARENA BAR

Argazkilaria  
Ander Salegi

(argazki erreportajeak,  
photoshop-eko erretokeak...)

andersalegi@gmail.com  
Tel: 685 703 843



## AURKIBIDEA



# BERRIKETAN

## 282

2023ko martxo

**Azaleko irudiaren egilea:**  
Nerea Bedialauneta Alkorta



**6 KOLABORAZIOA**  
Joxemari Altzibar:  
"Gure herriko memoriaren zati txiki bat"



**8 ALBISTEAK**  
Hiru liburu berri  
Tene Mujikaren irudia eta lana argitara emateko bidean



**10 ELKARRIZKETA**  
Huntza taldearen "etenaldi mugagabeaz" mintzo da Josune Arakistain lasturtarra



**14 ERREPORTAJEA**  
Orain arteko bidez eta egungo proiektuez jardun dugu Kooperazio Taldeko kideekin



**19 GEHIGARRIA**  
"Haizeak harrotuta Debabarrenean", DKT-k ondutako gehigarri berezia



**36 AGENDA**  
Datozen asteotan egingo diren jarduerak eta ekimenak jaso ditugu atal honetan

**Zuhatza** euskara  
elkartea

**Berriketan**

**ARGITARATZAILEA**  
Zuhatza Euskara Elkartea  
**HELBIDEA**  
Iifar kalea, 12 behe, 20820 (Deba)  
**TELEFONOAK**  
943 19 13 83 / 632 04 33 22  
**HEDABIDEAREN E-MAILA**  
berriketan@zuhatza.com  
**ELKARTEAREN E-MAILA**  
koordinatzailea@zuhatza.com  
**ERREDAKZIOA**  
Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta eta Alex Turrillas  
**KOORDINATZAILEA**  
Izaro Aulestiarte

**PUBLIZITATEA**  
Joseba Escudero eta Alex Turrillas  
**LOGOTIPOAREN DISEINUA**  
Iñaki Elosua  
**MAKETAZIOA**  
Maku Oruezabal  
**TIRADA**  
1.400 ale  
**MAIZTASUNA**  
Hilabetekaria  
**INPRIMATEGIA**  
GERTU koop. (Oñati)  
**LEGE GORDAILUA**  
SS/246/200  
ISSN: 2171-7656

### LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

### Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

# Gutunak



## Sakabanaketaren amaiera

Duela 34 urte sakabanaketa politika ezarri zitzairen euskal presoei, Espainia eta Frantziako kartzela ezberdinetan banatuz. Presoen giza eskubideak urratzeaz gain, urte hauetan guztietan senide eta lagunak milaka kilometro egitera behartuak izan dira bisita bat egin ahal izateko. Ezin dugu ahaztu egoera horrek mina, sufrimendua eta gastu ekonomiko handiak sortu dituela eta 16 lagunek bizia galdu dutela errepidean.

Egoera hori salatzeo, azken 30 urteotan, Deban, presoen senide eta lagunak ostiralero-ostiralero irten gara kalera, udaletxeko plazako elkarretaratzeak ohiko irudi bilakatuz.

Dispersioaren aroa amaitzean den honetan, mobilizazioa egokitzeko unea iritsi dela deritzogu eta elkarretaratzeak hileko azken ostiraletan egingo ditugu aurrerantzean, Etxeretek eta Sarek egiten duten deialdiari erantzunez.

Aro berri honetan, gure irudi nagusia (banderola) aldatu dugu; orain ez du maparik, geziak ditu soilik. Geziei jarraituz, preso, iheslari eta deportatu guztien giza eskubideak errespetatzearen alde dauden pertsona guztiak elkartzea da helburua.

Gure esku dago, beraz, lanean jarraitzea, euskal presoei legedi arrunta aplikatu diezaieten eta gure herrian bizikidetzan aurrera egin dezagun. Horretarako, mobilizatzen jarraitu behar dugu, etxera bidean aurrerapausoak emateko.

Gogoratu hilabeteko azken ostiraletan izango direla elkarretaratzeak, Foruen Plazan, 19:30ean.



Debako Sare

## Okerkaletik mundura

Gure herriko plazari lotutako hiru kale zeuden garai bat izan omen zen: batetik, denontzat ezaguna den *Iturkale*; bestetik, *Erdikokale* izenekoa, Lersundi kalea

guretzat; eta, azkenik, *Okerkale*, hiru kaleetatik zuzena ez zen bakarria baitzen. Azken hura zen Ostolaza kalearen lehengo izena, baita hemendik aurrera Kultur Elkartean lehen pausoak emango dituen podcast proiektu berriarena ere.

Podcast bat irratsaio klasiko baten antzekoa da. Baina, irrati klasikoan ez bezala, programa ez da zuzenean emititzen, plataforma digital ezberdinetara igotzen da, Internet bidez saioa edozein momentutan entzuteko aukera emanez. Gure kasuan, grabatzen diren saioak Okerkale Irratiaren Spotify, Ivoox eta Youtubeko kanaletan aurkitu ahal izango dituzue.

Hau guztia posible egiteko, Kultur Elkartek beharrezko azpiegitura instalatu du eraikineko azken solairuan; soinuarentzako nahaste-mahaia, ordenagailua, kalitatezko mikrofono eta aurikularrak... eta grabaketa-estudio horren erabilera proiektuan parte hartu nahi duen edonoren eskura egongo da.

Instalazioarekin bakarrik ez da nahikoa, ordea, eta, egitasmoa ezagutarazteaz gain, bertan grabatuko diren programa ezberdinen entzule izatera, haien bueltako iritzia helaraztera edota sortzen diren edukiak partekatzen laguntzera ere gonbidatu nahi zaitugu. Bestalde, programaren bat grabatzeko gogoia izanez gero, edota informazio gehiago jasotzeko interesa baldin baduzu, ongi etorria izango zara apirilaren 10ean, 19:00etan, Kultur Elkarteko areto nagusian egingo dugun bilera irekian. Anima zaituzte!

Okerkale Irratia

Maitena Arrizabalaga Deba  
Odontologoa

Kolegiatu zk. 20.000.975

**maitena**

HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24

Gipuzkoa kalea 28-3ºesk, Zarautz

Seven Clovers  
Irish pub

943 191 295



NAHIA EGUSKIZAGA

## Betilerik gabeko gizonak

Etxean Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ipuin bat irakurtzen ari nintzela, konturatu nintzen ipuineko protagonista neskek betileak zituztela eta mutilek ez. Harrituta geratu nintzen. Zergatik? Pertsona batzuek ez dute betilerik, baina horrek ez du sexuarekin inolako zerikusirik. Beste modu batera esanda: mutilek ere badituzte betileak.

Hau ez da pailazoen aurkako zutabea, ez gaizki ulertu. Baina adierazgarria iruditu zitzaidan: kritikoak izanda ere, sexismoa izerditzen dugu poroetatik, edaten dugun urak pozo hori duelako eta, nahiz eta gure jarduna gainbegiratu, hor dago, errotuta, hegemonia. Ez da inor eskapatzen egunero datorkigun meteorito uholdeaz.

“Zer da, neska edo mutila?”. Lehen galdera (erantzun zehatzik ez dugunean deserosotasuna sortzen diguna) eta, erantzunaren arabera, berezkoa izango balitz bezala, pakete arrosa edo urdina. Aldez aurretik dakigu zer gustatuko zaion, hanka artean duenaren arabera, dena eraikitzeko duen ume bati: panpinak, arropa deserosoagoa, apaingarriak (purpurina, bolanteak, hortzadarrak, *love* edo *princess* jartzen duten kamisetak), besteentzat desiragarri izatea, ertzetan mugitzea, neskontzat; baloia, mugimendua eskatzen duten jostailuak, txandala, *wild* edo *adventure* jartzen duten kamisetak, desio subjektu izatea, erdigunea, mutilentzat. Paketearen osagai batzuk aipatzearen.

Esajeratua naizela pentsatuko duzue, baina begira jartzen bazarete ikusiko duzue ez zaidala arrazoirik falta. Adierazi nahi dudana bakarra zera da: ez dezagula naturalizat edo berezkozat hartu mailukadaka eraikia dena.

**“Kritikoak izanda ere, sexismoa izerditzen dugu poroetatik, edaten dugun urak pozo hori duelako”**

### ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tfno. Mugikorra: 635 717 732  
Tfno.-Fax: 943 192 553  
fontaneriaiturlan@iturlan.com



**A. Esnaola**  
**P. Echeverria**

Hortz klinika Clínica dental

Fermin Calbeton 19-3 ezk. EIBAR  
943 20 72 17 - 660 422 808  
© @pyadent

# Gure herriko memoriaren zati txiki bat

JOXEMARI ALTZIBAR

2022ko urriaren 2an, Bustiñaga baserriaren aurrealdeko zelai barrenean, 1936ko irailaren 23an eraildako milizianoen gorpuzkiak desobiratu zituzten Aranzadi Zientzia Elkarteko ikertzaileek.

**E**skuen artean ditugun datuen arabera, erailketaren bezperan Itziarren erreketen nafar eta armada frankistako errebeldeen aurka kemenez eta adorez borrokatu ziren milizianoetako bat zen bere izena eta bizia galdu zituen mutil gaztea; Latorre teniente koronelaren gidaritzapeko *Columna Tutor* indar faxistari aurre egin zieten CNTko borrokarietako bat, hain zuzen ere. CNTko *Batallón Bakunin nº1*-eko partaidea omen zen, gazte anarkista bizkaitarrez osaturiko taldekoa.

Gipuzkoako kostaldea bereganatzen ari ziren erreketek eta armada faxista geldiaraztera etorria zen gaztea. Izan ere, Itziarko gainean milizianoak tinko mantendu ziren frankisten erasoan aurrean. Borroka gogorak izan ziren.

Garaiko iruzkin militarrek diotenez, Itziartik Debaruntz erretiratzen ari ziren indar errepublikarrak; batzuk errepidetik beherantz, beste batzuk Itxaspe aldera eta beste batzuk, berriz, Arriola ingurura.

## Eraildako zazpi miliziano, Itxaspe eta Deba artean

Itxaspetik Debara bitartean eraildako zazpi miliziano zenbatzen ditu CNTk, Itxuspuru aldean, Itxasperen magalean, Ama Birjinaren bistan eta Bustiñagan aurkitutakoak kontuan hartuz.

Irailaren 21 hartan, Itziarko errepidetik, San Raketik eta Arriolatik tirokatzen zituzten erretiradan zihozanak eta artilleria eta tiro zaparradapean ozta-ozta pasa zuten zubia. Faxistak gelditu asmoz zubia lehertu nahi izan zuten, baina ez zuten lortu. Haietako batzuek Mutrikuko bidea hartu zuten eta beste batzuek, berriz, mendian gora egin zuten Bustiñaga ingurura.

Garaiko testigantzen arabera, Itziarren edo Deban zauritu ondoren ihesi zihoan desobiratutakoa. Busti-



36ko gerran hildako milizianoaren gorpuzkiak. JOXEMARI ALTZIBAR

ñaga eta Txokorrekoek hilda aurkitu zutenean, hilerrian ehorztea eskatu zieten Debaz jabetu ziren agintari berriei. Haien ezezkoaren ondoren orain aurkitutako zelai magalean lur eman zioten.

Oraindik izenik ez duen gazte milizianoaren gorpuzkiak poliki-poliki lurrez garbitzen zituzten unearen lekuko izan ginen. Momentu hartan gutako zenbaitek sentimendu kontrajarriak izan genituen: batetik, soro batean zetzan errepublikaren alde eta faxisten aurka bere bizia eman zuen gazte bizkaitar iraultzailearen gorpua etxera eta familiarengana bidean zen eta horrek tristura eta amorrua sentiarazi zigun; bestetik, lasaitasuna eta poza eman zigun 1936ko irailaren 23an lurperatutako miliziano baten gorpua bertan zegoen susmoa egiaztatzeak.

Hau ere gure memoria osoaren zati xume bat delakoan, eta egiari zor zaiolako, oraindik ere izenik ez duen CNTko milizianoari: *Agur eta ohore, que la tierra te sea leve* (CNTko milizianoen esaldia).



MANEX ASTIGARRAGA

## ‘Societas sana in mundo sano’

Errealitatea ideiaz eta materiaz osaturik omen dago, arimaz eta gorputzaz. Ez dakit. Dakidana da ideal handi eta puruek ez dutela sekula lekurik izan lurrean. Bai, ordea, gizabanako askoren baitan.



Ez nuke inondik inora halakoek duten garrantzia gutxietsi nahi; halere, idealok sarri egon dira praktika eta prozesu errealekin kontraesanean, itxuraz bederen. Errealitatea hala baita, korapilatsu eta tematia, ideia handienak ere lurrerarazteko lain. Eta... praktikak errealistatzen du ikuspegia.

Oinak lurrean dituenak soilik aintzatets dezake, argi-itzal guztiekin, Sobietar Errepublikak Sozialisten Batasunak gizateriaren aurrerabideari eginiko ekarpena edota Errusiar Federazio kapitalistak mendebaldar inperialismoaren aurrean nazioartean daraman lehen lerroko jarduna aitortu. Zerrenda amaiezinean beste hamaika kasu jar litezkeen arren, hobe hain urrutira joan gabe geure txikitik ekitea.

Izan ere, idealen eta errealitate objektiboaren arteko kontraesanik handiena (eta agian barkaezina) esaten denaren eta egiten denaren artean ager daitekeena da. Ziurrenik, denok dugu zinikotik eta hipokritatik apur bat (gutxienez), baina, zahartzea bizitzan zehar harturiko erabakien zama motxilan eramatea bada, busti ez denaren motxilan ezin aurki daiteke historia interesgarririk, ezta ikasgai handirik ere.

Hitz potoloetan aztarrika ibili baino, hobe busti, beraz. Itsasoak aldi zakarrak bere dituen arren, ura ez baita inoiz egoten dirudien bezain hotza.

**“Busti ez denaren motxilan ezin aurki daiteke historia interesgarririk, ezta ikasgai handirik ere”**


**TaxiAlain Deba**


[www.taxideba.eus](http://www.taxideba.eus)

**636 135 008**  
 alain@taxideba.eus

**LABATAI**  
 taberna

GOSARIAK GOIZEKO  
 06:00 ETATIK AURRERA  
 PINTXOAK, OGITARTEKOAK  
 ETA PLATER KONBINATUAK,  
 EGUN OSOAN ZEHAR



## Beste hiru lan, Tene Mujika eta haren lana ezagutzera emateko

Tene Mujika idazle eta olerkari debarraren irudia eta lana ezagutzera emateko bidean argitaratu diren azken hiru lanak aurkeztu zituzten otsailaren 22an Agirre jauregian.

Ekitaldian aurkeztutako liburu horietako bat Nekane Goikoetxea Mondragon Unibertsitateko irakasle debarrak idatzi du. *Tene Mujika emakumea. Pizkundetik ahanzturara. XXI. mendetik ateratako postargazkiak* ikerlana Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 2019an sortutako Berdintzen bekaren lehenengo saritua izan zen.

Cira Crespo historialariak ondu du bigarren liburua: *Tene Mujika*

*udazkeneko argitan*. Debako Udalak argitaratutako lan horretan, besteak beste, Mujikak 60ko eta 70eko hamarkadetan idatzitako idazlanak, poemak eta iritziak batu ditu egileak.

*Tene Mujikari eskainitako erakusketaren katalogoa eta Tene Mujikaren objektu pertsonalen erregistroa* lana, berriz, Belen Ibarrola diseinatzaile grafikoak Goikoetxearekin eta Cresporekin "ahizpatasunean" ondutako lanaren emaitza da. Egileen esanetan, gerra garaiko eta gerraosteko indarkeria jasan zuten emakume aitzindariak omentzea da Ibarrolaren erakusketa ibiltarian bildutako lanei buruzko argitalpenaren helburua.

## Apirilean 'Tea rooms: mujeres obreras' liburua hizpide Irakurketa Klubean

Luisa Carnes idazlearen *Tea rooms: mujeres obreras* (Hoja de lata, 2016) lanari buruz jardungo dute Ostolaza Udal Liburutegiko Irakurketa Klubean apirilera iragarri duten saioan. Hilaren 25ean izango da, 19:00etan, gaztelaniaz; Ainhoa Aldazabalek gidatuko du saioa.

Bertan parte hartu nahi dutenek aldeztu aurretik eman beharko dute izena, [ostolaza@deba.eus](mailto:ostolaza@deba.eus) posta elektronikora idatzita, liburutegira bertararuta, edo 943 19 25 60 edo 697 444 074 zenbakietara deituta.



## Mobilizazioak eta egitarau berezia M8aren bueltan

Urtero legez, mobilizazioak eta askotariko jarduerak egin dira Deban eta Itziarren Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan. Zoru pelbikoa eta menopausia izan dira hizketagai nagusi, besteak beste, aurtengo egitarauan.



**ASKETA, S.L.**

ERAKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

**OFICINAS Y EXPOSICION:**  
 Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
 E-mail: [asketa@telefonica.net](mailto:asketa@telefonica.net)  
[www.asketa.net](http://www.asketa.net)

**ALMACÉN:**  
 Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
 20850 MENDAROA (Gipuzkoa)



**K21**  
 KALITATEA  
 Empresa Registrada Nº 2 / 05 / 049  
 NIVEL 2



**Bar LOREA**

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095





MAITE RODRIGUEZ

## Negua edertzen du uda

Deban udaberria hasi berri dagoenean, Irlandan udarako gutxi falta da. Arrazoia zein den? Antzinako egutegi zelta jarraitzen dutela oraindik. Egutegi zelta antzinakoa da, kristautasuna baino zaharragoa eta guretzat nahiko aldrebesa, noski. Egunak, adibidez, iluntzean hasten ziren.

Urtea eta negua azaroaren Iean hasten ziren, Samhain egunean. Espirituen munduaren eta gure munduaren arteko mugak nolabait ahultzen dira sasoi horretan. Halloween Samhainetik dator, Ameriketako komertzializatu zena beranduago. Halloween jaieguna da gaur arte.

Urtearen bigarren erdia, erdi argia, maiatzaren Iean hasten zen, Bealtaine egunean. Samhain eta Bealtaine ziren urteko jaialdi nagusiak, erlijioan, nekazaritzan eta abeltzantzan oinarrituak. Ganadua, uztak eta herria babesteko errituak egiten zituzten bai Samhainen eta bai Bealtainen, eta festak ere bai. Maiatzaren 1a jaieguna da gaur egun ere.

Udaberria otsailaren Iean hasten zen, Imbolc egunean. Brigid jainkosa omentzen zuten egun horretan. Kristauek Saint Brigid ipini zioten, eta gaur egun ere jaieguna da.

Udazkena abuztuaren Iean hasten zen, Lughnasadh, Lugh jainko zeltaren omenez. Mendi puntetan egiten ziren Lughnasadh ospakizunak. Gaur egun ere, tradizioa nolabait kristautasunera birziklatu dute eta Croagh Patrick mendira igotzea ohitura da. Eta, bai, abuztuaren 1a ere jaieguna da.

Ohitura asko galdu diren arren, benetan harrigarria da ikustea beste zenbat mantendu diren belaunaldiz belaunaldi, gaur artean, izenak pixka bat aldatuta. Eta, gainera, jaiegunak direnez, ni pozik.

**“Ohitura asko galdu diren arren, benetan harrigarria da ikustea beste zenbat mantendu diren belaunaldiz belaunaldi, gaur artean, izenak pixka bat aldatuta”**



[www.aukera-inmobiliaria.com](http://www.aukera-inmobiliaria.com)  
Aukerarik onena!

943 12 13 95



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

# “Gorabeheratsua, azkarra eta zurrunbilo baten antzekoa izan da, niretzat, Huntzaren ibilbidea”

JOSUNE ARAKISTAIN • Musikaria



"Etenaldi mugagabea" iragarri du Huntza taldeak, "arnasa hartu eta indarberritzeko astia" behar dutela azalduta. Bilboko kaleetan sortu zen taldea 2014an eta, sei kideak gipuzkoarrak izanagatik, Bilbon bertan emango diote amaiera hamar urteko zikloari; 2024ko otsailaren 3an igoko dira azken aldiz agertokira, Miribilla Arenan egingo duten *Azkena balitz bezala* kontzertuan. Aurrez, bira berezi bat egingo dute udan.

**G**elditzea erabaki du Huntzak, urteotan bost disko, hamaika bira eta ehunka zuzeneko egin ondoren. Azken emanaldia 2024an egingo duten arren, uda honetan bira berezi batekin agurtuko dituzte jarraitzaileak. Hartutako erabakiaz eta egindako bidez aritu gara Josune Arakistain abeslari eta trikitilari lasturtarrarekin.

## Zaila izan al da agur esateko erabakia hartzea?

Egia esan, erabaki gogorra izan da, azken finean sei lagun garelako. Gogorra da, berez arazorik ez dagoenean, hainbeste markatu zaituen etapa bati amaiera ematea, baina garbi ikusi dugu gelditzeko unea zela, gure bizitzak asko aldatu direlako ia hamar urtean, eta momentuan gure bizitza pertsonalek beste zerbait eskatzen zigutelako. Seiok hartutako erabakia izan da, denok egon gara ados.

## "Etenaldi mugagabea" izango omen da... zer esan nahi du horrek zehazki? Ez da, hortaz, behin betiko agurra?

Ez zaigu gustatzen "betiko" agur bat dela esatea. Orain gelditzea erabaki dugu eta ez dakigu berriz batuko ote garen. Ez dakigu hemendik bi, hiru, bost edo hogei urtera nola egongo garen eta horregatik ez genuen atea ez itxita ez irekita laga nahi. Orain sentitu dugu etenaldi hau behar genuela, baina ez dakigu noiz arte.

## Oihartzun handia izan du albisteak. Aspaldidanik zeneukaten erabakita proiektuari amaiera ematea?

Buruan genuen zerbait zen, egia esan, baina bakoitzak bere buruan. Talde bezala ez ginen inoiz honi buruz hitz egiten jarri, bilera-afari batean bakoitza nola sentitzen zen esaten hasi ginen arte... eta hura izan zen bakoitzak sentitzen zuena hitzetan jarri zuen unea; hor konturatu ginen honek etenaldi bat behar zuela. Bilera hartatik erabakia iragarri bitartean ez ziren egun asko pasa. Atsedenaldi laburrago bat egitea pentsatu genuen hasieran, baina benetan sentitzen genuena hitzetan jartzean ikusi genuen hau potologoa zela eta bestelako erabaki bat hartu behar genuela.

## Bederatzi urteko ibilbidea egin duzue elkarrekin. Nola laburbilduko zenuke egindako bidea?

Huntzaren ibilbidea gorabeheratsua izan dela esango nuke; niretzat, gorabeheratsua, azkarra eta zurrunbilo baten antzekoa izan da, bat-batean Otik 100era hasi ginelako. Huntzak eman dizkidan gauza onenen artean, beste bost taldekideekin sortutako harreman ona eta panorama musikalean sartzeko aukera eman izana nabarmenduko nituzke. Gauza txarren artean, berriz, gogoratzen dut sarrera hura nolakoa izan zen eta horrek niri pertsonalki eta presio aldetik zer suposatu zidan.

### **Nolakoa izan zen, bada, sarrera edo hasiera hura?**

Ez nintzen batere kontziente neurritikirtenda geundela, ez ginen egoeraz jabetzen. Ez geneukan erreferenterik halakoetan "normala" zer den jakiteko... Zer da normala single bat ateratzen duzunean? Gure lehen singlea *Aldapan gora* izan zen (berez bigarrena, baina ofizialki lehena), ez geneukan erreferentziarik, nebulosa moduko batean geunden; galduta, pozik... ez genekien nola sentitu. Atzera begiratuta, askotan pentsatzen dut ez dugula jakin pasa zaizkigun gauzei benetako garrantzia ematen. Dena batera etorri zitzaigun eta, agian, behar baino garrantzi txikiagoa eman genien gauzei, edo behar baino gutxiago baloratu genituen zenbait gauza.

### **Gauzak ezberdin ikusten al dituzu orain?**

Oraindik ere askotan etortzen zait hasierako sentsazio hura. Zaila da deskribatzea: proposamen bat jaso eta... uf, ez! agobiatuta nabil pentsatzea, baina zer garrantzi duen ikustea gero. Duela aste batzuk, adibidez, Kepa Junkeraren omenaldian jotzeko esan zidaten, niretzat erreferente diren trikitilari pila batekin, eta momentuan, agobiatuta, ezetz esatekotan egon nintzen. Baina zera pentsatzen duzu gero: nola esango diezu ezetz zure erreferente guztiak jotzeko aukera izanda? Hasierako momentuetara eramaten nauen sentsazio bat da. Hasieran hala izan zen, ez nintzen kontziente gauzek zuten garrantziaz eta ez nuen lasai egon baintz bezainbeste gozatu.

**Huntzaz gain, bakarkako proiektua ere abiatu duzu, Süne. DJ Rikkirekin batera kaleratutako 'Sunday' lehen singlearen ondoren etorri dira ETS taldearekin sortutako 'Gu geu garena' edota Marea Urdinarekin elkarlanean egindako kanta ere...**

Desberdina da bakarka aritzea. Erabakiak hartzeko orduan, adibidez, ez dauzkate beste bost buru eta, zentzu horretan errazagoa da, baina, aldi berean, asko laguntzen du beste bost buruak alboan izateak, babestu egiten zaitu. Oraingoz, bakarkako ibilbidea nola doan ikusten nabil. Eta gozatzen, nire erritmora, poliki-poliki. Giroz aldatzeko gogoia nuen, musikalki batez ere motibatzen nauten haize berrien bila nabil. Horrek ez du esan nahi Huntzak motibatzen ez nauenik, baina



Josune Arakistain musikaria. IRATXEETXEANDIA

## **"Sormen aldetik haize berriak behar nituela sentitzen nuen eta horregatik sortu zen Süne bakarkako proiektua"**

sormen aldetik haize berriak behar nituela sentitzen nuen eta horregatik sortu zen Süne bakarkako proiektua. **Ezberdinak dira bakarka sortu dituzun kantak, baina loturaren bat ere badute euren artean, ezta?**

Egia da tekno edo musika elektronikoaren munduan sartzen ari naizela, baina folka beti daukat barruan. Eta *mix* hori ateratzea nahiko normala egin zait, ez da batere behartua izan. Azkenean, Itziar batean, trikitixa eta "txitxarro" nahastea nahiko naturala da. Gustura nago, egia esan.

### **Erronka zehatzik bai aurrera begira, Josune?**

Sorkuntzaren jonkia naiz. Kantu berri bat egiteak sortzen didan pasio eta motibazio hori oraingoz badaukat eta momentuz Süne moduan kantak egiten jarraituko dut.

## Kardantxulo Eguna ospatu dute, Itziarko Gazte Asanbladaren ekimenez



"Askorako eman du aurtengo Kardantxulo Egunak. Argi geratu da, beste behin ere, egun honek zenbaterainoko garrantzia eta erreferentzialtasuna lortu duen azken urteotan herrian". Hitz horiekin laburbildu du Itziarko Gazte Asanbladak martxoaren 18ko ospakizuna.

"Herritarrok herritarrontzako" antolatutako ekimena da Kardantxulo Eguna. Antolatzailerik gogorarazi dutenez, Andutz Biltokiko gazteek hamabost urte pasa daramatzate Itziarko mozorro eguna antolatzen. "Garai batean 'Gazte Eguna' izenez zen ezaguna, baina azken

urteotan izena aldatu diogu, herriko eta inguruko haur, gazte eta helduek ere egunaz goza dezaten".

Beste urte batzuetan ez bezala, dena den, aurtengo ospakizuna Itziarko Gazte Asanbladak antolatu du; "izan ere, azken urtebetean Itziarren bolo-bolo dabilen kontua baieztatu dezakegu: bai, herriko beste proiektu baterako erabiliko denez, 'zentrua' goitik behera bota dute eta horrek Andutz Biltokia elkartearen amaiera ekarri du". Asanbladako kideek nabarmendu dute "ate bat itxi eta beste bat ireki" dela.

### Antolatzailerik, esker onez

Deialdiari egindako harrerarekin pozarren azaldu dira antolatzailerik. *Aberastasuna* gaia abiapuntutzat hartuta, mozorroak izan ziren protagonista beste behin ere. Goizean mendi ibilaldia egin ondoren, musikaz girotutako poteoa eta herri bazkaria egin zuten (65 lagun batu ziren). Iluntze eta gau partean, berriz, eguraldi kaskarrari aurre eginez, musika izan zen nagusi; Distopia elektrotzaranga ez ezik, Amildegia eta Nikotina taldeak ere aritu ziren karpan.



**DEBA** | Bulego berria

Maxpe kalea, 7 behea ☎ 943 19 21 06

**EIBAR** | Zezenbide, 4 behea ☎ 943 20 70 02

📷 asesoriagestilan

🌐 gestilan.es

✉ gestilan@gestilan.es

## Zortzi astez itxiko dute Deba eta Itziar lotzen dituen N-634 errepidearen bideetako bat



Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi bezala, Deba eta Itziar batzen dituen errepide zatia berritu eta egiturari egokitutako errodatze geruza berri bat emango diote datozen asteetan.

Azaldu dutenez, prebentziozko jarduketak izango da, "errepidearen bizitza luzatzeko". Zehazki, N-634 errepidearen 38,350 eta 43,260 kilometro puntuen artean egingo dute jarduketak, hau da, Debako hondartzako tuneletik hasi eta Itziariko Hostal jatetxeraino doan tartean.

Lanak Asfaltia SL enpresari esleitu dizkiote eta aurrekontua 754.607,58 eurokoa da (BEZ barne). Aurreikuspenen arabera, zortzi astetan egingo dute jarduketak. Hasiera batean bi epetan egiteko asmoa zuten, baina azkenean jakinarazi dute epe bakarrean egingo dutela guztia. Beraz, lanek apirilaren 17tik ekainaren 8ra arte iraungo dute. "Martxoaren 23tik martxoaren 31ra bitartean egin beharreko lanak bertan behera geratuko dira, asfalto planta konpontzeko lanengatik", argitu dute aldunditik.

Lanak egin ahal izateko, 07:00etatik 22:00etara bitartean errepidearen bideetako bat itxita egongo da. Zehaztutako ordu tarte horretan aldizka joango dira errepidea ixten. Iragarri dutenez, semaforo bidez arautuko dute noranzko bakarrek zirkulazioa.

## Ikasteko gela bat sortzeko lanak abiatu dituzte Anguleru kalean

Anguleru kalean, lehen baserritarren postuak egoten ziren lokalean, ikasteko gela bat sortuko du udalak, herritarrek ikasteko leku gehiago (eta ordutegi zabalagoa) izan dezaten. Launa laguntzako lekua izango duten lau mahai jarriko dira bertan eta "erabilera irekikoa" izango da; hau da, behin erabiltzeko eskaera eginda, erabiltzaileari emango zaion kode baten bitartez hark behar duen ordutegian erabili ahal izango du gunea.

Espazioa barrutik atontzeaz gain, bertara heltzeko espaloian ere egingo dira lanak, irisgarritasuna hobetze aldera, eta lan horiek egiten ari diren bitartean lokalaren aurrean zamalanetarako bi leku kendu dituzte (pareko espaloia erabili beharko dute oinezkoek). Proiektuak 16.000 euroko aurrekontua du eta lanak hiru hilabetetan amaitzea aurreikusten dute.

Iturkale 2 beheka - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

**Zumardi**  
pensioa  
\* \*  
Tel.: 688 800 619  
info@pensionzumardi.com  
www.pensionzumardi.com  
f @

**BURU - ZURI**  
Taberna

- Otarrekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**ORAIN**  
ileapaindegia  
943 19 21 09  
Hondartzka kalea, 2  
Deba

# Kooperazio Taldea, beharra dutenei laguntzeko prest

Munduko herrialde askotan pairatzen ari diren krisi klimatiko eta ekonomiko latzen ondorioz edota herritalde horietan dauden gatazka armatuen eraginez, gora egin du azken urteotan munduan laguntza humanitarioa behar duten herritarren kopuruak. Behar horri erantzun eta euren herrialdeetan "hobeto" bizi nahi dutenei laguntzeko nahiarekin jaio zen duela bederatzire urte Kooperazio Taldea. Ordutik, hainbat elkartasun proiektutan parte hartzeko aukera izan dute.



Kooperazio Taldeko kideak Debako IV. Elkartasun Azokan parte hartzen.

**D**uela bederatzire urte, 2013ko abenduan, hasi zuen jarduna Debako Kooperazio Taldeak. Geroztik, behar gehien dutenei laguntzen jarraitzeko konpromisoa berresten jarraitzen du taldeak.

Herriko emakume talde batek borondatez antolatzen zuen elkartasun denda izan zen guztiaren hazia. Denda urtean behin jartzen zen, eta halako elkartasun ekintzei gainontzeko hilabeteetan ere jarraipena emateko helburuarekin jaio zen, hain zuzen, taldea. "Denda itxi ondoren egin genuen batzarrean kooperazio talde bat sortzera animatu gintuen Patxi Aizpitarte herriko apaizak. Gabonetako dendaz gain, urte osoan bestelako ekintzarik ez egitea pena zela esan zigun", adierazi dute taldekideek. Esan eta egin. Aizpitartek jotako enbidoari heldu, eta elkartasun dendaren ardura zeramatenen lekukoa hartuta sortu zuten talde berria. "Patxi amua bota zigun eta, gure artean eztabaidatu ondoren, hark proposatutako ideia ona zela iruditu zitzaigun", gaineratu dute.

Gaur-gaurkoz, 11 lagunez osaturik dago taldea eta, beharrezkoa den guztietan, musurik kooperatzeko prest dauden beste hogeit bat kolaboratzailearen laguntza ere jasotzen



Kooperazio Taldeko kideak. ERREDAKZIOA

dute. "Taldea soil bat izan ordez, ekipo izaera dugula esan ohi dugu. Eta hala da. Talde titularra osatzen dugun hamaikakoaz gain, beti laguntzeko prest dagoen boluntario sare sendo baten laguntza jasotzea pozgarria da".

### Muturreko egoeran daudenei laguntzen

Taldea sortu eta berehala, 2014ko urtarrilean, hasi ziren ekinean: *Kolorea eta goxotasuna* izan zen abian jarri zuten lehen proiektua. "Gutariko askok hari-lanak, puntua eta antzeko lanak egiten dakigula kontuan hartuta, elkartasun mantak egiteko proiektu bat abiaraztea bururatu zitzaigun".

Manten diseinua 20x20 zentimetroko laukiak josita osatuko zutela zehaztu ondoren, taldekideak eta hari-lanak egiten arituak ziren beste hainbat kolaboratzaile buru-belarri hasi ziren lanean, baina helburua lortzeko bidean lehen zailtasunarekin egin zuten laster topo: eskura zuten artile apurra ez zela nahikoa konturatu ziren. "Artile asko behar genuen eta, kopuru handi hura gure kabuz erostea ezinezkoa zenez, laguntza eske hastea erabaki genuen. Hainbat tokitara deitzen aritu ginen eta, horrela, lehen sorta egiteko behar genuen material guztia doan lortu genuen. Jendea

## 11 lagunek osatzen dute taldea. Beharraren arabera, beste hogeit bat kolaboratzailearen laguntza ere badute

oso eskuzabala izan da. Orain arte, egia esan, sektoreko enpresa, denda eta norbanako askok lagundu digute".

30 mantaz osaturiko lehen sorta prestatu ondoren, haiek nora bideratu erabakitzea izan zen taldearen hurrengo erronka. "Erabaki hori hartzeko orduan ere Patxi izan genuen bidelagun. Hainbat elkartasun proiektutan ibilia da eta, duen esperientziari esker, proiektu eta errealtate asko ezagutzen ditu; Gipuzkoako Caritasekin hitz egitea gomendatu zigun". 2015eko urtarrilean, Donostiako Aterpe etxegabeen zentroan banatu zuten lehen sorta hura eta, orduz geroztik, urtero, hutsik egin gabe, Gipuzkoako Caritasen beste hainbat proiektutan laguntzeko aukera ere izan dute. "Mantei esker, pobrezia egoeran edo bazterketa sozialeko arriskuan daudenei laguntzeko aukera paregabekoa izan dugu eta, aldi berean,



Kooperazio Taldeko kideak, mantak nola egiten dituzten erakusten.

## Udalaren ekarpenaz gain, urtero antolatzen dituzten denda eta azokak dira taldearen diru iturri nagusiak

Caritasek laguntzen dituen proiektuak hurbilagozik ezagutu ahal izan ditugu".

Jarduna hasi zuten hilabete beretik, gainera, Maliko Togo eskualdean dagoen Saint Paul eskolari laguntzen ere aritu dira. "Urtero proiektu bat garatu dugu eta horietako bakoitza, bere osotasunean, Debako Udalaren ekarpenari esker gauzatu ahal izan dugu".

### Ilusio berriak pizten

Malin aurrera eramandako lehen proiektua ur edangarria jasotzeko ur-depositu bat eraikitzea izan zen. Ondorengo urteetan ere beste hainbat egitasmotan murgilduta ibili dira: besteak beste, komunak, duxtak eta ikasgela berriak

eraiki dituzte, baita irakasleak bizi diren etxeak berritu ere. Eskolara joaten diren ume eta gazteei, gainera, hezkuntza eta elikagaiak bermatzeko beharrezkoak diren bitartekoak ematen saiatu dira. "Aldiro-aldiri, ikasten jarraitu ahal izateko bekak banatzen dizkiegu, baita jantokirako bekak ere, ondo elikatuta egon daitezen".

Urtero antolatzen dituzten elkartasun denda eta azokak dira taldearen diru iturri nagusiak, eta nahikoa baliabide ekonomiko dutenetan, gainera, bestelako proiektu batzuetan ere laguntzen dute. Keniako Kaikor elkartearen izan da, esaterako, diruz lagundu duteneko bat. "Hango eskolako proiekturen bat bultzatzeko diru pixka bat bideratzen dugu urtero, bertan ezagutzen dugun boluntario baten bitartez". Debatik bidalitako diruarekin, gainera, larraldietan erabiltzeko furgoneta bat ere erosi ahal izan dute herritarrek. "Furgoneta, batez ere, jendea ospitalera eramateko baliatzen dute".

2019az geroztik, Ukrainan, Txernobylgo zentral nuklearraren hondamendiak kalte-tutako eremuan dagoen Orane herriko eskolara ere bideratzen dute laguntza. "Bidaltzen dugun diru apurrarekin, bereziki, eskolako jolas-orduan banatzeko fruta, esnea eta galletak erosten dituzte". Ahal duten guztietan, gainera, beste elkarte batzuekin ere kolaboratu izan dute. "Premia dutenei eskura ditugun baliabide guztiekin erantzuten saiatzen gara". Besteak beste, Ekuador, Senegal, Haiti, Peru, Filipinak edo Mexikora ere bidali izan dute laguntza.

Taldekieken iritziz, lagun hurkoari laguntzeko egiten duten guztia "ekintza txikiak" besterik ez dira. "Proiektu bakoitzaren



## Debako parrokiaren babespean aritzen badira ere, azaldu dute taldeko kide izateko ez dela beharrezkoa elizarekin zerikusirik izatea



ardura dutenekin sarri mantentzen dugun komunikazioari esker, laguntzen ditugun herritarren errealitatea gertutik ezagutzeko aukera dugu. Guretzako oso pozgarria da bidaltzen dugun dirua bere fruitua ematen ari dela ikustea. Hala ere, jakitun gara ematen diegun laguntza txikiak ez diela bizitza guztiz konponduko, baina pairatu behar izaten duten muturreko egoerari aurre egiten lagundu diezaieke".

### Taldera gerturatzeko gonbidapena

Sustatzen dituzten elkartasun proiektuetan laguntzen jarraitu ahal izateko, baina, jende konprometitu gehiagoren beharra dutela aipatu dute; taldearen atea zabalik daude nahi duenarentzat. "Laguntzeko prest dauden guztiak beso zabalik hartuko ditugu. Nahikoa da gutako batengana hurbildu eta zertan laguntzeko prest dagoen esatea. Antolatzen ditugun ekintzetan parte hartzea ere etortzen dira batzuk eta, egia esan, horien noizbehinkako inplikazioa ere benetan esker-tzekoa da".

Parrokiak Ifar kalean duen bulegoetako batean batzen dira. "Ostegunetan elkartzen gara. Jarrita ditugun helburuen arabera, maiztasun handiagoarekin edo txikiagoarekin biltzen gara". Debako parrokiaren babespean aritzen badira ere, azaldu dute taldeko kide izateko ez dela beharrezkoa elizarekin zerikusirik izatea. "Taldean jende oso fededuna daukagu, baina baita elizara joaten ez dena ere. Gure helburua, jendea laguntzea da, norberak fedearen aurrean izan dezakeen ikuspegia errespetatuz".



Maliko Saint Paul ikastetxeko ikasleak.



Orane (Ukraina) herriko ikasleak, Kooperazio Taldekoei eskerrak ematen.



Haitiko eskola bateko ikasleak, bidalitako eguzki lanparekin eskuan.

# Bazkideen omenezko kontzertua emango du Musika Bandak



ARG.: INMAALBERDI

Aste Santua gerturatu ahala, urteko lehen kontzertua eman ohi du Debako Musika Bandak eta, aurten, apirilaren 1erako iragarri du emanaldia; 13:00etan izango da, elizako klaustroan. Ondoren, bazkaria antolatu dute Bikain jatetxean, baita dantzaldia ere.

Musikariek azaldu dutenez, bandako bazkideei eskerrak emateko baliatzen dute kontzertua. Gaur egun, 300 bazkide inguru ditu

Debako Musika Bandak, eta herritar horien laguntza edo ekarpen ekonomikoarekiko esker oneko azaldu dira musikariak. Era berean, nabarmendu dute "asko estimatzen" dutela emanaldiz emanaldi alboan izaten dituzten entzule guzti-guztien babesarekin.

## Kanpaina, babes bila

Aurrera begira, bandak bazkide kanpainarekin jarraituko du, herritar gehiagoren babesarekin lotu asmoz. Interesdunek kontzertuetan izango dute bazkide egiteko aukera, baita bandaren sare sozialen bitartez ere, Interneten. Helduen urteko kuota 12 euroan eskaintzen dute, 12 urtetik beherakoena 6 euroan, eta familiarra (hiru kide baino gehiagorena) 30 euroan; afariak, saskiak edo emanaldietarako sarrerak zozkatu ohi dituzte bazkideen artean.

## Xahu taldearen emanaldia eta jam session irekia KulturEkin egitarauaren baitan

Martxoaren 31n izango da KulturEkin-en baitan antolatutako hirugarren emanaldia. 22:00etatik aurrera, Kultur Elkartean (doan), jazz musika izango da protagonista; Xahu taldea ariko da agertokian. Lehenik, kontzertu labur bat joko dute musikariek eta, ondoren, jam session irekia izango da, oholtzan beste herritarrei eta oro har inprobisazioari leku eginez.

## Ruper Ordorika, apirilean

Apirilean, bestalde, Liburuaren Nazioarteko Egunaren bueltako jarduerak egingo dituzte. Hilaren 22an, esaterako, goizean liburu azoka, bermut literarioa eta mikro irekia egingo dute Kultur Elkartean. Gauean, berriz, Ruper Ordorikaren kontzertua izango da, 22:00etan. Sarrerak apirilaren 3an salduko dira, 18:00etan, 10 euroan.

**Informatika**  
Tresneria  
informatikoa

**Elektronika**  
Osagai  
elektronikoak

**Informatika JLC Elektronika**  
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83  
Faxa: 943 19 18 36  
Mugikorra: 686 939 601

[informatikajlc@informatikajlc.com](mailto:informatikajlc@informatikajlc.com)

**atari**  
INMOBILIARIA

943 19 22 63  
[atari@atarideba.com](mailto:atari@atarideba.com)  
[www.atarideba.com](http://www.atarideba.com)

**ieraenea**  
ekodenda

"maite ditut nire/gure baserrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA  
Telf: 943 53 95 20- E-mail: [ieraenea@gmail.com](mailto:ieraenea@gmail.com)

**LAMARIANO**  
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba  
943 19 12 52

**Arteondo**  
Autobusak S.L.

[arteondo@arteondo.es](mailto:arteondo@arteondo.es) • 943 19 93 34

**SUKIA**

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)

# Haizeak harrotuta Debabarreanean

**dkt**  
Debabarreko  
Komunikazio  
Taldea

Green Capital Energy enpresak Karakate-Irukurtzeta gainean parke eolikoa egiteko proiektua aurkeztu du, eta horrekin batera, orain dela 20 urteko mamuak berpiztu dira Elgoibarren eta Soraluzen. Baina horrez gain, Debabarreneko beste mendi batzuk ere parke eolikoak jartzeko leku optimo gisa izendatu dituzte, eta horrek guztiak haizeak harrotu ditu Debabarrenean. Orriotan aurkituko duzue Debabarrenerako parke eolikoei buruzko informazioa.



# Eolikoetarako gune optimoak

SORALUZEN, EIBARREN, MENDARON, DEBAN, ITZIARREN ETA MUTRIKUN DAUDE

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala (LPS) ari da tramitatzen. Hasierako dokumentua idatzita eta ikusgai dago, Eusko Jaurlaritzaren [euskadi.eus](http://euskadi.eus) atarian.

Energien Plan Sektorialak zapi energia berriztagarri ditu aztergai: eguzki-energia fotovoltaikoa, eguzki-energia termikoa, energia eolikoa, energia ozeanikoa, biomasaren energia, energia geotermikoa eta energia mini-hidraulikoa. Besteak beste, energia mota horiek sortzeko eta lortzeko Euskal Autonomia Erkidegoko eremu optimoak markatzen ditu eta a proposak ez diren eremuak baztertu.

Plan Sektorialaren tramitazio prozesuan erakundeek, elkarteek, eragileek... zuzenketak zein proposamenak egin dituzte, beraz, litekeena da aldaketak izatea behin betiko LPSak. Eusko Jaurlaritzak udarako nahi du onartu Energia Berriztagarrien LPSa eta behin betiko plana hura izango da.

## **%21etik %16,1 eolikoetatik**

Eusko Jaurlaritzaren hasierako LPSaren arabera, 2030erako, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian kontsumitzen den energiaren %21 iturri berriztagarrietatik sortzea

lortu nahi dute, %16 bertan sortuta eta %5 kanpotik ekarrita.

Bertan sortutako energia berriztagarriari dagokionez, berriz, energia eolikoaren aldeko apustua egiten du Jaurlaritzak. Gaur egun, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, 153 MW produzitzen dira dorre eolikoaren bidez eta helburua da 783 MW produzitzea. Hau da, zazpi aldiz biderkatzen du zentral eolikoaren bidez ekoitzi nahi den energia berriztagarri kopurua.

## **Zuzenean aplikatzekoak**

Hori ahalbidetu eta bultzatzeko, Energia Berriztagarrien LPSaren aurrerapenak honakoa dio: "Haize-aprobetxamenduari lotutako eskala handiko ekoizpeneko energia berriztagarriko instalazioak 1. mailako eremu optimo garbiak eta 2. mailako eremu optimo garbiak izenekoetan ezartzea erabilera edo jarduera onargarri-

tzat jotzen da, Lurralde Plan Sektorial hau indarrean sartzen denetik zuzenean aplikatzeko, eta ez da beharrezkoa izango inolako hirigintza-plangintzaren bidez garatzea, lurzorua sailkapena eta kalifikazioa edozein izanik ere; hala ere, aplikagarri den sektore-araudiaren arabera, beharrezkoak diren gainerako baimeak, lizentziak eta onarpenak beharko dira".

Gune optimoei dagokienez, lehen mailakoak dira urtean 3.350 orduz funtzionatzeko ahalmena izango luketen lekuak; bigarren mailakoetan, berriz, urtean 2.650 ordu baino gehiagoan egon ahalko lirakeke martxan dorre eolikoak.

## **Debabarrenean, zortzi**

LPSak, 33 eremutan, 139 lerrokada bereizi ditu zentral eolikoak egiteko gune optimo modura. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 33 esparru horietatik zortzi Debabarrenean daude, guztiak ere mendietan.

## **Soraluze-Elgoibar**

Debabarrenean, oraingoz, zentral eoliko bat eraikitzeke eskaera bakarra dago aurkeztuta. Green Capital enpresak (Capital Energy multinazionala) aurkeztu zuen

**Berriztagarrien  
LPSaren aurrerapenak  
zortzi gune optimo  
bereizi ditu  
Debabarrenean**

**Argitaratzailea:** Debabarreneko Komunikazio Taldea

**Erredakzioa:** Ainhoa Andonegi, Ekhi Belar, Dorleta Vidal, Ubane Madera, Izaro Aulestiarte

**Diseinua eta maketazioa:** Ekhi Belar

**Azaleko irudia:** Pexels

**Tirada:** 18.425 ale

**dkt**  
Debabarreneko  
Komunikazio  
Taldea



Karakate. Argazkia: Egoitz Unamuno.

egitasmoa Soralueko zein Elgoibarko udaletan, 2022ko otsailean.

Aurreproiektuaren arabera, bi aerosorgailu ezarriko lituzkete Karakatek Gizaburuagara bitartean. Dorre bakoitza 101 metro altu izango litzateke eta barruan, eskaierak, igogailua eta plataformak izango lituzke. Hegal bakoitza, berriz, 77 metro luze izango litzateke. Beraz, hegal eta guzti, aerosorgailu bakoitzak 180 metro inguruko garaiera izango luke.

Konparatze aldera, dorreak Soralueko elizdorrearen garaieraren halako lau neurtuko luke, Elgoibarko Mintxeta kirolgunea baino luzeagoa izango litzateke edo Bilboko Iberdrola dorrea baino handiagoa (165 metro ditu hark).

Dorreen oinarriek, berriz, 26 metroko diametroa izango luke eta hiru metroko sakonera, lurpean. Potentziari dagokionez, aerosorgailu bakoitzak, batez beste, 4.800 kw-eko potentzia sortuko luke.

### Elgoibarko azpiestaziora

Aurreproiektuan zehazten dutenez, zentralak sortzen duen energia Elgoibarko azpiestazio elektrikorera eramango lukete, Azkueko zentralera (jabea Iberdrola da), handik sare orokorrera konektatzeko. Energia, lurpean sartutako kableen bitartez bideratuko

lukete Elgoibarko azpiestaziora, 4,79 kilometroko ibilbidean zehar.

Proiektuak, guztira, 10.762.915 euroko aurrekontua izango luke.

Eusko Jaurlaritzaren Garapen Ekonomiko eta Jasangarritasunerako Departamenduak abuztuaren 2an jarri zuen ikusgai Green Capital Development 135 SLU enpresak Karakateko parke eolikoa eraikitzeko aurkeztu duen hasierako ingurumen txostena.

### "Uztargarria eta moderatua"

Bertan, enpresak zehazten du bere ikuspuntutik proiektuak zer nolako inpaktua eragingo lukeen ingurumenean eta inpaktu hori minimizatzeko zein neurri hartuko lituzkeen. Enpresaren iritzi, proiektuak ingurumenean izango lukeen eragina "uztargarria eta moderatua" izango litzateke eta, ondorioz, ez du ikusten arrazoirik proiektua geldiarazteko.

Ingurumen txostena argitaratu arte, Green Capitalek ezagutarazi gabe zituen proiektuaren gaineko hainbat informazio; esaterako, ingurumen txostenean argitu zuen nola pentsatzen dituzten garraiatzea zentral eolikoa



Jaungoikomendi. Argazkia: Xangarin (mendiak.eus).



Kalamua mendian Markina-Xemeini dagokion gunea ezarri dute eolikoak jartzeko gune optimo bezala. Argazkia: Ekhi Belar.

eraikitzeke pieza erraldoiak: Elosutik garraiatuko lituzkete, horretarako, mendi gainean zehar 5 metro zabal eta 8 kilometro pasatxo lituzkeen errepidea eraikiz, aerosorgailuak ezarriko lituzketen kokalekuraino. Horrekin batera, aurreproiektuan aipatzen ez zuen "dorre meteorologikoa" eraikitzeke asmoa ere azaltzen da ingurumen txostenean. Hirugarren dorre hori 101 metro garai izango litzateke eta txostenean diotenez, eraikitzeke, "gutxienez" 520 m<sup>2</sup>-ko plataforma eraiki behar-ko lukete. Bestalde, txostenak dorre eolikoak muntatzeko era-

biltzea aurreikusten duten espazioa ere zehaztu zuen: 3.000 m<sup>2</sup>.

Egitasmoaren prozedurari dagokionez, berriz, Green Capitaletik esan dute espedientea tramitatzen segitzen dutela eta zaila dela behin betiko proiektuaren gaineko data zehatzik ematea.

#### **Beste kokagune bat**

Zentral eoliko bat eraikitzeke egitasmoa aurkeztuta izan arren, Eusko Jaurlaritzaren LPSaren aurrerapenaren arabera, Soraluze-Bergara inguruan, eremu bakarra dago kontsideratuta aerosorgai-

luak jartzeko eremu optimo modura: Txurruka gaineko Koskorreta-Ozeta Irukurutzetatik Osintxu aldera jaisten den hegi handian dago kokatuta esparrua, Soraluze Atsedentxaboleta esparru ingurua modura ezaguna den gunea. 625 bat metroko esparrua.

Karakate-Irukurutzeta lerroka-dura, berriz, gune baztertu modura azaltzen da LPSaren aurreapenean, baina aldi berean, lerroka-dura hori ez da osorik baztertzen.

#### **Eibarren, bi**

Bestalde, Soraluze ez ezik, berriztagarrien LPSak eolikotarako beste zazpi kokagune optimo bereizi ditu Debabarrenean, bigarren mailako gune optimoak, guztiak ere.

Horietako bi Eibarren edo Eibar inguruan daude: bata, Akondian (Arrikurutz) eta bestea, Markina-Xemeinekin muga egiten duen Kalamua mendian. Bien artean, kilometro eta erdiko luzera hartuko lukete.

#### **Mendaro-Deba-Itziar, gehien**

Itziar-Deba-Mendaro eremuan daude, berriz, gune optimo kopururik handienak identifikatuta, bost: Urkamendi-Arriola (Itziar, Deba), Otaerre-Larraskanda (Deba, Mendaro, Azkoitia, Izarraitzen); Otaerre (Txoriskita)-Elordi-Urkullu (Mendaro, Deba, Izarraitzen) eta Andutz-Txobillar (Itziar, Deba). Guztira, lau kilometro pasa.

#### **Mutrikun, sei gune lerratuta**

Azkenik, Mutrikun beste lerrokada bat markatu dute gune optimo modura. Ez da lerrokada jarraia, baizik eta guztira lau kilometro pasako luzera hartuko luketen sei gune daude markatuta; bat izan ezik gainerako guztiak Jaungoikomendi eremuan daude kokatuta.

# Eragile politikoaren iritzia

ZER IRUDITZEN ZAIZUE DEBABARRENEAN PARKE EOLIKOAK JARTZEA?

Ordezkaritza politikokoek zeresana izango dute Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren tramitazioan eta, horregatik, gaur egun Debabarrenean ordezkaritza duten alderdi, plataforma edota eragileekin egon nahi izan dugu gaiaren gainean euren iritzia zein den jakiteko. PP alderdiaren kasuan, ostera, Ermuako PP-ren izenean erantzun diote geure galderari.



Krisi energetiko batean murgilduta gaude. Erregai fosiletan errotutako gure energia-sistemaren ondorioz pairatzen ari garen klima-aldaketa areagotzen ari da.

Arazo honi aurre egiteko, tresna nagusia trantsizio energetikoa da, hau da, erregai fosiletan errotutako sistema energetiko bate-

tik emisio gutxiko edo karbono-emisiorik gabeko batera aldatzea, iturri berriztagarrietan oinarrituta.

Denok bat gatoz energia berriztagarrien aldeko apustua egin behar dela, baina modu zuhur, kontrolatu eta antolatuan, horrek ez baitu esan nahi horren kostua hutsa denik. Energia eolikoa batzuentzat elektrizitatea sortzeko modurik garbiena, berriztagarria eta kutsadurarik gabekoa bada ere, ezin dugu ahaztu ingurumenean eta biodibertsitatean duen eragin ezkorra.

Horregatik guztiagatik, gure eskualdean parke eoliko bat jartzeko aukeraren aurrean, ezer baino lehen, azterketa zorrotz bat egin beharko genuke, irizpide teknikoak, ingurumenekoak, sozialak eta ekonomikoak kontuan hartuta.

Baina ez dezagun ahaztu planetaren etorkizuna gure esku dagoela, eta, beraz, has gaitezen kontsumo-ohiturak aldatzen: energia-kontsumoa murriztuz, kontsumo iraunkorragoa sustatuz eta ditugun baliabideak modu eraginkorrean erabiliz.

## ehbildu

Garrantzitsua da parke eolikoaren eraginaz hitz egin aurretik larrialdi klimatikoaz eta energiaren krisiaz hitz egitea. Alde batetik, erregai fosilekiko dugun menpekotasuna dago, eta bestetik, honek larrialdi klimatikoan duen eragina. Beraz, ezinbestekoa da erabat lotuta dauden bi gaiak helitzea eta Euskal Herrian ere trantsizio ener-

getikoa lehentasunez hartzea. Horretarako, behar dugun energia kontsumoa zehaztuko duen eta hau lortzeko oinarriak jarriko dituen Energia Estrategia diseinatu behar da. Beraz, Lurralde planifikazio eskutik behar du energia berriztagarrietan oinarritutako planifikazio energetiko bat. Energia berriztagarrien hedapen ordenatu baterako planifikazioa da behar duguna, eta hau da LPS berriak duen gabezia nagusia. Gure ustez, autosufizientzia ahalik eta eskalarik txikienetan bilatu behar da, eta horlortu ezin dena goragoko eskaletan

bilatu, beti maila lokaleko autosufizientzia osatzeko helburuarekin. Eta betiere aintzat hartuz arrazoi ezberdinengatik salbuetsi eta babestu beharreko eremuak. Trantsizio energetikoak interes publikoari erantzun behar dio, eta gure ustez, ezinbestez aipatutako baldintzei. Beraz, parke eolikoaren beharra eta kokapenaz hitz egin aurretik, ezinbestekoa da Euskal Herrian dugun energia beharra aztertzea eta honi bide emateko herritarrekin batera prozesu sakonak egitea, herritarren oniritzia ezinbestekoa delako estrategia honetan.



LPS batek, izan orain arte indarrean dagoen eolikoena edo lantzen ari den berriztagarrienak, berriztagarri hori non ezin den garatu uzten du garbien; eta, garatzekotan, garatzeko balizko lekuak zehazten ditu. Planak aipatzen du balizko eremu horiek zehaztasun gehiagoz lantzen dituela eremu bakoitzera ko proiektua egiten denean. Proiek-

tuak berak zehaztuko ditu hai-zerrotak non jarriko diren eta proiektuak lurrari sortuko dizkion morrontzak. Indarrean dagoen Planaren barruan planteatzen diren parke batzuk bertan behera gertatzen ari direla ikusten ari gara, ingurumen edo arategiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzea ezinezkoa gertatzen zaielako edo garapena bideragarria ez delako. Energia berriztagarriak ezinbestekotzat jotzen baditugu eta trantsizio energetikoa egin behar bada, erabakiak hartu eta neurriak ezarri behar dira, ahalik inpaktu-txi-

kiena sortuko duten berriztagarriak bultzatzeko. Ezin dugu berriztagarrien alde egon eta proiektuak zehaztasunez ezagutu gabe, alarma sortzen hasi edo aurka jarri. Gure industriak ezinbestekoa du aztarnarik gabeko energia ekoiztea. Eta gure ongizatea industrian oinarrituta dago. Horrek ezinbestean berriztagarriak jartzera eraman behar gaitu. Gainontzean, berriztagarria bada ere, kanpotik ekarri beharko dugu, kanpokoek ezartzen diguten prezioan. Burujabetza bada gure helburua, energian ere, gure energia ekoizten hasi behar dugu.

### Itziarko Auzo Udala

Talde eragilea

Azkenaldian bizi dugun energia-krisiak areagotu egin du tokiko energia berriztagarriekiko interesa, trantsizio energetikoa gauzatzeko premia agerian utzi baitu. Baina trantsizio hori egiteko modu asko daude. Trantsizioa jasagarria izateko, plangintza beharrezkoa da, eta horretarako LPSa tresna baliagarria izango da. Aurrerapen Doku-

mentuan, zentral eolikoak egiteko eremu egokien artean, Irureko Haitzetik Andutz tontor aldera eta Urkamenditik Arriola bitarteko kokapenak ageri dira. Geoparkea, Biotopoa, Izarraitzeko babesgunea... Balio handiko ingurua dugu, eta eraikuntza hauek sortuko luketen atzera bueltarik gabeko txikizioak kezka sortzen du. Industriadia bertan izanik, energia-iturri berriztagarriak ustiatzeko hau bezalako eremu antropizatuak lehenetsi beharko liritekeela uste dugu, lur gehiago artifiziaizatu ordez. Kokapenaren eztabaidaz harago, tran-

tsizio energetikoa aldaketa sakonagoen eskutik etorri beharko luke. Emakumeen Eguneko aldarrietako bat zaintzak erdigunean kokatzea izan da. Energiak badu garrantzia zaintza horretan, eta negozio gisa kudeatzetik eskubide gisa kudeatzaera pasatu beharra dago, herritar ahaldundu eta energiaren jabetza berreskuratuz. Energiak herritarren benetako beharrei erantzun behar die, hazkunderaren logika alde batera utzita. Energiaren erronkak aldaketa sozioekonomiko sakonak eskatzen ditu, benetan zaintza erdigunean jarri nahi bada.



Galdera batekin hasiko gara. Aldaketa klimatikoari aurre egiteko gizarte bezala, herritar bezala, zerbait ipintzeko prest al gaude? Erantzun bakarra teknologia eta natura suntsitzean oinarrituko al dugu? Debabarrenean Natura 2000 sareko naturgune babestuak eta SARE BERDEA osatzen duten ekosistemak eta galtzeko arriskuan

eta egoera zaugarrian dauden hainbat espezie dauzkagu. Bi markada baino gehiago daramatzagu lurraldea aktibo finantzario gisa erabiltzen. Hortik dator administrazioaren desarautzea eta eskuhartze falta. Azken 50 urteetan zientzialariek behin eta berriro azaldu digute etengabeko hazkundera ezinezkoa dela mugak dauzkan planeta batean. Argi eta garbi jakin behar dugu mendi guzti-guztiak parke eolikoz eta zelai guztiak eguzki-panelekin beteko bagenitu ere, ezingo genukeela gaur egungo energia kontsumoa mantendu.

Askoz energia gutxiago kontsumitzen ez badugu, ordezkapen hau ez da iritsiko. Nolabaiteko arrazionaltasun eta errealismoak gidatu beharko gintuzkeela uste dugu. Izan ere, hori da, eta besterik ez, berriztagarrien makroproiektuen aurkako mugimenduek eskatzen dutena: demokrazia eta subiranotasun energetikoa. Hau da, zer energia mota, zenbat eta zertarako erabakitzeko gaitasuna. Bizitza eta ekonomia birkokatzea izan daiteke irtenbidea, tokiko energia eta materialekin tokiko beharrak ase ahal izatea.





Ezin da okerrago egin. Otarre eta Atxurigain bezalako mendieta-rako proiektuak planteatzeak -kontuan izanik Izarraitz mendigunean kokatuta daudela eta urak Kilimon ibaiaren akuiferora (Mendaro) drainatzen dituztela-, erabateko ezjakintasuna eta zentzugabekeria erakusten ditu. Proiektu horiek lurpeko eremua-

ri eragingo lioketen kutsadura ondo dokumentatuta dago. Elgoibar, Deba, Itziar, Mendaro eta Mutrikuko urak elikatzen diren akuiferoa babesteak beste interes batzuen gainera egon beharko luke. Beste proiektu batzuek, hala nola Kalamuakoak eta Karakatekoak, amorrarazi egin ditu herri-tarrak, mendi horiek gordetzen dituzten ondare-balioak hondatzearen aurka daudelako. Karakateren kasuan, Elgoibarko eta Soralluzeko udalek ezezko irmoa adierazi dute, baina proiektuak aurrera jarraitzen du, bi udalek

onartu dituzten Babes Planak gorabehera. Eusko Jaurlaritzak ez ditu berriztagarriak bultzatu, 40 urtean gasaren eta fracking-aren aldeko apustua egiten jardun delako soilik, eta orain gasaren eta petrolioaren lehengo oligopolio energetikoaren eskutik doa, energia berriztagarrien oligopolio berri gisa posizionatzeko, proiektuakesleitzu, ingurumenean edo gizartearen suminean duten eragina gorabehera, eta udalen aurrean eta herritarren interesen aurka inposatuz. Ez, gauzak ez dira horrela egin behar.



Gipuzkoak kanpoarekiko mende-kotasun energetiko handia du (%90) eta energia berriztagarrien presentzia ez da % 8ra ere iristen. Datu horiek kontuan hartu behar ditugu erabakiak hartzerakoan, mende-kotasun energetiko handia gure eta eskualdeko enpresen kostuen igoeraren eta lehiakortasun-galeraren arrazoi bat baita, eta baita

gure herritarren erosteko ahalmena galtzearen arrazoietakoa bat ere. Lurraldeko udalari eta eskualde guztien trantsizio energetikoa bizkortzeko garaia da, udal askotan komunitate energetikoekin egiten ari garen bezala, baina ez da nahikoa kanpoarekiko daukagun mende-kotasuna gainditzeko. Energia berriztagarrien behin betiko bultzada eraginkorrean lan egin behar dugu, eta hor energia eolikoak eta parke eolikoak aliatu izan behar dute gure lurraldean. PSEk trantsizio energetiko berde baten aldeko apustua egiten du, baina justua eta

soziala izan behar da, eta garatzen diren berriztagarrien proiektu guztiek osagai sozial hori izan dezaten lan egiten dugu. PSEk garrantzitsutzat jotzen du proiektu eolikoak gauzatzeko hauek ahalik eta zorroztasun tekniko handienarekin egitea, eta, hala, ingurumen-balioei lehenatasuna ematea, proiektu guztien ingurumen-inpaktuak modu metatuan eta sinergikoan aztertuz. Horretarako, oso garrantzitsua da Eusko Jaurlaritzak, energia berriztagarrien LAParen onarpena azkartzea. Plan horrek denbora gehiegi darama izapidetzen.



Kultura-, natura- eta paisaia-interes handiko eremu baten inguruan hitz egiten ari gara. Baina,aldi berean, energia merkeago eta garbiagoak nahi ditugu. Dikotomia honen aurrean, Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala onartzea izango litzateke logikoa, eta hori Eusko Jaurlaritzari dagokio. | Ermuko PP

# "Egin behar den lehenengo gauza energia kontsumoa jaitea da"

**IÑIGO ANSOLA** ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIA

Iñigo Ansola Kareaga (Markina-Xemein, 1974) Euskal Energia Erakundeko (EEE) zuzendaria da. Azpimarratu du energia berriztagarriak lortzeko mota guztietako proiektuak beharko direla eta egin beharreko lehen gauza energia kontsumoa jaitea dela.

## **Zein da egungo egoera?**

Dependentzia handia dugu. Kanpotik ekartzen dugu kontsumitzen dugun energiaren %90 eta %10 guk sortzen dugu. Hemen sortutako horretatik %62 biomasa da, %21,7 bioerregaia, %4,9 eolikoa, %5,4 hidroelektrikoa eta %5,8 eguzki energia (2020ko datuak dira).

## **Zer lortu nahi da?**

2030erako kontsumitzen dugun energiaren %21 izatea berriztagarria, izan guk produzitutakoa (%16) zein kanpotik ekarritakoa (%5). Gaur egun, kontsumitzen dugunaren ia %17 iturri berriztagarrietatik sortutako energia da, inportatzen ere ari garelako berriztagarrietatik sortutako energia. %21 lortzeko, gure plan estrategikoan azaltzen da, adibidez, 783 MW jarriko dugula sektore eolikoen bitartez; gaur egun, 153 MW daude martxan. Euskadin oso energia kontsumitzaile handiak gara. Energia asko kontsumitzen dugunez, kontsumoaren

mix hori berriztagarrien aldera ehuneko bakarra aldatzeko ere, sekulako ahalegina egin behar dugu. Ez da gauza bera Extremadurako mix energetikoa aldatzea edo Euskadikoa. Gero dator hurrengo eztabaida: energia berriztagarri asko sortu behar dugu. Baina, zelan eta non?

## **Hori da, zelan eta non?**

Ondo dago plaka fotovoltaikoekin auto-kontsumorako proiektuak sartzeara eta horretarako dirulaguntza asko banatzen ditugu; baina horrek ez du asetzen dugun premia guztia. Plakak beren teilatuetan jarrita ere, portzentaje bat lortuko dute industrietan, baina ez behar duten beste. Tamaina guztietako proiektuak behar ditugu: txikiak, ertainak, bai eta handiak ere, energia asko sortuko dutenak.

Plaka fotovoltaikoek lur eremu handiak behar dituzte. Eta eolikoak haizeak jotzen duen lekuan jarri

behar dira; gure erkidegoan, mendi tontorretan, mendi gailurretan, dago haizea. Proiektu hauek inbertsio ekonomiko handia egitea eskatzen dute, eta gutxieneko bat zaindu behar da, haizeari dagokionez. Horregatik dago interesa, baita ere, itsasoan jartzeko, han mendietan baino baliabide egokiagoak daudelako argindarra sortzeko. Baina gure itsasoak erronka zailago bartzuk planteatzen ditu: plataforma kontinental sakonak ditu eta azpiegiturak flotatzaileak izan behar dira, baina gure itsasoak, neguan, badaki olatu ikaragarriak sortzen; gainera itsasokoa ur gazia da, eta horrek konponenteak ugertu egiten ditu. Baina hor dago baliabide oso garrantzitsua eta enpresa pribatuak sekulako apustua egiten ari dira.

**Energia Berriztagarrien LPSaren aurrerapenean, zortzi gune optimo markatu dira Debabarrenean eolikoetarako. Zer lortu nahi da horrekin?**

Legeak zein gunearen ezaugarriak kontuan hartuta, ikusten dira zeintzuk diren gunerik onenak parke eolikoak jartzeko. Beste kontu bat da gero enpresek gune horiek interesgarriak ikusten dituzten edo ez. Aldagai desberdinak aztertu beharko dituzte. Adibidez, izan

**"783 MW jarriko dugu sektore eolikoen bitartez, gaur egun 153 MW daude martxan"**



Iñigo Ansola Kareaga. Argazkia: EEE.

daiteke gune bat oso egokia haize aldetik, baina konexioa 25 kilometrorra izatea eta horrek ez egitea hain aproposa izatea. Normala den moduan, edozein parke negozio plan bat izan behar du atzetik, burutzen diren inbertsioak oso handiak direlako eta proiektu horiei etekina atera behar zaielako. Beraz, gerta daiteke LPSan egokitzat jotzen den eremu batera inor ez joatea proiektu batekin, ez delako interesgarri ikusten.

**Alemanian, adibidez, autobide batzuk plaka fotovoltaikoz estalita daude. Hau da, gune degradatuak erabili dituzte energia sortzeko. Halakoak hemen ezin dira egin?**

Denak beharko ditugu. Argi eta garbi. Aztertzen ari dira, adibidez, harrobitan eguzki energia aprobetxatu daitekeen, bide bazterretako

zortasun-bideak erabiltzea, urtegitan eguzki-plaka flotanteak jartzeta... Ideia asko daude. Dena da aztertzea proiektuek zenbat argindar sor dezaketen, inbertsioak nolabaiteko itzulera izango duen ikusteko. Guztiek dute inpaktua, eta aztertu egin behar dira.

**Hemen eta han, kontrako jarrera handiak ikusten ari gara zenbait proiektuekiko. Zelan baloratzen duzue hori?**

**"Herritarrok proiektu horiek geureganatu eta geure sentitu behar ditugu"**

Ulegarria da. Argi dago parke eolikoek zein fotovoltaikoek ingurumenarekiko inpaktua dutela. Egin behar dena da parke horiek indarrean dagoen legedia, ingurumen baldintzak eta beste era batekoak betetzen dituztela bermatu. Bermatzen baldin bada hori, zalantzarik gabe, aurrera, energia ikuspegitik oso premiazkoak ditugulako. Erronka bat ere badugu: herritarrok proiektu horiek geureganatu egin behar ditugu eta geure sentitu. Gaurko teknologiak laguntzen du geureganatzeko modu desberdinak sortzen: sortzen den argindarra-rekiko onuradunak izanda edo parke horretan geure jabetasuna izateko aukera izanda.

**Ez da aztertu energia kontsumoa jaitsi beharra?**

Egin behar den lehenengo gauza da hori: energia kontsumoa txikitzea. Zenbat eta energia gutxiago kontsumitu, orduan eta errazagoa izango da iturri berriztagarrietatik lortzea. Energia mailan politikarik eraginkorrena izango da eragin-kortasun energetikoa. Produktu bat lortu energia gutxiago erabiltzen edo gure etxea berotu energia gutxiago erabiltzen. Horretara diru asko dugu zuzenduta, geroz eta energia gutxiago kontsumi dezagun etxeetan, industrian, zerbitzuetan eta, zer esanik ez, batetik bestera mugitzeko.

# "Argi dugu herritarren gehiengoak ez duela proiektu hau nahi"

## KARAKATE BIZIRIK PLATAFORMA

Orain dela 20 urte entzun zen estreinakoz Karakaten parke eolikoa eraikitzeko aukerak aztertzen ari zirela, eta orduan sortu ziren Elgoibarko eta Soraluzeko Karakate Bizirik plataformak, Karakate babesteko helburuarekin. 2022ko urte hasieran aktibatu zituzten berriro bi taldeak, Green Capital Energy enpresak Karakaten parke eolikoa eraikitzeko proiektua aurkeztu zuenean. Herritarrak informatu eta hainbat ekintza egin dituzte, Karakate bizirik nahi dutelako.

### **Karakate gainean egin nahi duten parke eolikoaren kontra bildu zarete. Zeintzuk dira proiektuaren kontra egiteko ikusi dituzuen arrazoi nagusiak?**

Karakate ingurua bere osotasunean babestea da gure helburua. Izan ere, bizi garen zonalde industrializatu honetan, mendiak dira gure arnagune bakarrak. Karakate mendi berezia da gainera inguruko herritarrontzat, dugun lotura afektiboaz gain inguruak dituen balio askotarikoengatik: geologia, ekologia, arkeologia, paisaia zein aisiaren ikuspegitik babestu beharreko eremua dela uste dugu.

### **Duela 20 urte egon zen Karakaten parke eolikoa egiteko beste saiakera bat, eta orduan atzera bota zuten. Zelan ikusten duzue bigarren saiakera hau?**

Asko arduratu gaitu proiektua berrartzeak. 1998an izan zen lehen saiakera, eta herritarrok gelditzea lortu genuen orduan.

Orain, eskualdeko mendietan hainbat proiektu aurrera eramateko arriskua dago. Karakatez gain, Kalamua, Akondia, Txurruka gaineko Koskorreta-Ozeta, Andutz-Txobillar, Otarre-Larraskanda, Juangoikomendi, Urkamendi-Arriola ere kokagune egokitzat aurreikusten dira. Beraz, aukera hau baliatu nahi dugu, eskualdeko gainontzeko herritarrak gaitzeko kezka duten biztanleak gugana gerturatu daitezen gonbitea egiteko.

### **Zein puntutan ikusten duzue une honetan Green Capital en-**

**"1998an izan zen lehen saiakera, eta herritarrok gelditzea lortu genuen orduan"**

### **presak Karakaten jarri nahi duen parke eolikoaren proiektua?**

Behin betiko proiektua egon ez arren, gure mendien kontrako faktore asko ditugu, besteak beste, Europako, Madrilgo eta Gasteizko Gobernuak mega proiektuak garatzeko onartzen ari diren erraztasunengatik. Urte askoan administrazioak ezer egin gabe egon dira eta orain dena korrika egiteko beharra dute, Europak ezarritako berriztagarrien ekoizpen kopuruetara iristeko, eta inolako egiturazko plangintzarik gabe dabiltza. Ondorioz, enpresa pribatuak dira proiektuak txanpinoi moduan planteatzen ari direnak. Karakateko asmoari dagokionez, Proiektua eta Ingu-rumen-Inpaktuaren azterketa publikoa egiteko zain gaude, eta hauteskunderen ondoren publiko egingo duten susmoa dugu.

**Karakate-Irukutzeta gaina arkeologikoki babestutako ingurunea da, baina proiektu**



Karakate Bizirik plataformako hainbat kide.

### **hau atzera botatzeko adinako babesik ba al dauka?**

Green Capital enpresak Hastapeneko Ingurumen inaktuaren txostena aurkeztu zuen abuztuan. Bi herrietako plataformek, mendi taldeen laguntzarekin, eta baita Bergara, Soraluze eta Elgoibarko udalek ere ekarpenak egin genizkion txosten horri. Guretzat badu babes nahikoa, aurreko saiakeran ere Babes Arkeologikoagatik bota zutelako proiektua atzera, baina argi dugu, nahi badute egingo dutela, interes ekonomiko handiak daudelako tartean eta Administrazioa alfonbra gorria jartzen ari delako Energiaren Lobbyei. Aurre egiten aurkituko gaituzte. **Elgoibarko eta Soraluzeko udalak proiektuaren kontra posizionatu dira. Horrek lagundu dezake proiektua atzera botatzen?**

Proiektuaren aurkako eta Karakate babestearen aldeko posizionamendu oro da positiboa, zer esanik ez herritarron ordezkaririk diren

erakundeek aho batez egiten badute. Baina badakigu azken erabakia ez dela udalena, hau da, proiektua geratzea ez dagoela erabat udalen esku. Hala ere, gutxienez herrien posizioa argi lagatzeko balio du, hemen kontrakotasun eta kezka bat dagoela erakusteko. Aldi berean, antolatu ditugun ekimenetan parte hartu izana eskertzea nahiko genieke herritarrei (Mendi Martxa, jende katea, hitzaldiak, 2.026 sinadura Elgoibarren...). Argi dugu, herritarren gehiengoak ez duela proiektu hau nahi.

### **Karakaten ez dituzue eolikoak nahi, baina ez zarete energia eolikoaren kontra agertu. Eolikoak zein baldintzatan onartuko zenituzkete?**

Eolikoaren ezarpenak plangintza bati jarraitu beharko lioke, lurraldearen behar eta aukeren analisi arrazional batetatik abiatuta, eta ezin da inprobisazioaren emaitza izan. Azken honek eraman du

## **"Megaproiektuak baina, proiektu herrikoia goak bultzatu behar dira"**

txanpinoiak bezala zentralak bata bestearen atzetik proiektatzera. Plan sektorial horrek aspaldi behar zuen osatua, baina momentuz zirriborroa baina ez da egin publiko. Behin betiko plana osatu arte, herritarren parte-hartze ezinbestekoarekin, planteaturiko proiektuei baimenik ez litzaiekeela eman beharko iruditzen zaigu, adibidez moratoria bat ezarritik. Eolikoak ezartzeko baldintzetan ez gara adituak, baina iruditzen zaigu irizpide batzuk kontuan hartu beharko litzaiekeela: inguru antropizatuei lehenetsia eman (harrobiak, industrialdeak...), nekazaritza eta abeltzantzarako balio altuko eremuak eta naturguneak babestu... Kapitalaren pilaketarako diren mega proiektuak beharrean eskala txikiagoko proiektu herrikoia goak bultzatu behar direla uste dugu.

### **Egungo kontsumo ohitura eta kopuruari begira, zein alternatiba proposatzen duzue?**

Gure taldeak ez ziren sortu alternatibak plazaratzeko, Karakate babesteko baizik. Hala ere, herritarrak informatzeko hitzaldiak antolatzen gabilta, praktikan dauden eredu eta alternatiba ezberdinen berri emanez. Izan ere, Lobbyen interesen gainetik alternatibak egon badaude.

# "Trantsizio ekosozialak energia berriztagarrien inplementazio azkarra behar du"

**ALAITZ AJURIAGERRA** JAUZI EKOSOZIALA

Urte hasieran Jauzi Ekosoziala dinamika aurkeztu zuten, iaz egin ziren Ekotopaketetatik abiatutako ekimena. Alaitz Ajuriagerra eibartarra da dinamika horretako kideetako bat.

**Nolako egitasmoa izan zen Ekotopaketak? Zergatik eman duzue pauso hau?**

Ekotopaketak krisi ekosoziala eztabaidatzeko eta gaia jorrazteko helburuarekin antolatu genituen, askok mugimendu ekologista artikulatzeko eta indartzeko beharra ikusten dugulako. Asko dira tokian-tokian gai ezberdinen bueltan antolatuta dauden taldeak, izan basogintza eredia lantzen dutenak, elikadura burujabetza lantzen dituzten kontsumo talde eta nekazariak, erraustegiaren aurkako taldeak, AHTaren aurkakoak... Baina ikuspegi orokor batetik begiratuko duen mugimenduaren falta igartzan dugu, ekologismoa modu transbertsalean landuko duena eta gai sozialekin lotuko duena. Izan ere, gure egunerokoan ekologismoak arlo askotan bustitzen gaitu, nahiz eta kontziente ez izan. Borroka ekologista klasikotik haratago joan nahi dugu, eta krisi ekosoziala agenda politikoaren

erdigunean jarri. Helburu nagusia jendartera heltzea izan beharko litzateke, gai ekologikoak bizitzen ari garen krisi honetan eztabaidagai egon daitezen.

**Zeintzuk dira zuen helburu nagusiak?**

Esan bezala, ekologia erdigunera ekartzea eta gai sozialekin uztartzea da helburu nagusia. Ekologismoa eta krisi ekosoziala agenda sozial eta politikoaren erdigunera eramatea, alegia. Horretarako gure artean saretzea, beste gai batzuetan politizatuta eta aktibatuta dagoen jendea ekologismora hurbiltzea eta jende ez politizatua ere aktibatzea izango da erronka handiena.

**Nolako trantsizio energetikoa egitea proposatzen duzue?**

Trantsizio energetikoa beharrezko trantsizio ekosoziala proposatzen dugu. Horrek dituen zailtasun guz-

tiak kontuan hartuta, ikuspegi global eta orokor batetik begiratu, begirada sistemikoarekin. Trantsizio ekosozialak energia berriztagarrien inplementazio azkarra behar du, baina ez edozein modutan. Irizpide eta baldintza minimo batzuk ezinbestekoak dira: planifikatua izan behar du, parte hartzailea eta demokratikoa. Makroproiektu berriztagarriak jartzearekin bakarrik ez dugu arazoa konponduko. Egun trantsizio energetikoa korporazio handiek zuzentzen dute, helburu nagusi bakarra etekin ekonomikoa ateratzea dute eta ez dago modu ordenatu eta planifikatuan planteatuta. Kontsumo energetikoaren murrizketa handi batekin batera planifikatu beharko litzateke horien instalazioa, eskala ezberdinetan, parte-hartze publikoarekin, inpaktuak kuantifikatuta edo aztertuta eta erreparazio eta konpentsazioak kontuan hartuta, eta horiek sor ditzaketen etekin ekonomikoa eta sozialak kalteak izango direnekin elkarbanatu. Sentsazio orokorra da, erregai fosilak ordezkatu baino mix energetikora gehitzeko planteatu direla modu inposatu batean. Bestalde, klima larrialdiaren kausa eta

**"Krisialditik modu duinean ateratzeko, nola nahi dugun bizi birpentsatu behar dugu"**



Jauzi Ekosoziala ekimenaren bozeramaileetako bat da Ajuriagerra.

ondorioez, biodibertsitatearen galeraz, gure eredu sozioekonomikoaren jasangarritasunaz, gure mugikortasunaz, gure kontsumo ereduaz, gure pribilegioez gutxi egiten da berba, eta klabeak dira trantsizio justu baterantz joateko. Baliabide mugatuak dituen planeta batean hazkundean oinarritutako sistema ekonomikoa ezartzea izan da hona ekarri gaituen arazoa. Energia zertarako eta norentzako galderari erantzun behar diogu alde batetik, eta gero, non eta nork sortuko duen. Denon bizitza duinak eta oinarritzko beharrak asebetetzeko, beharrezkoa da energia kuantifikatzea, eta horretarako beharrezkoak izango ditugun azpiegiturak zeintzuk izango diren kalkulatzeko, ahalik eta inpaktu txikiena dutenak bilatzea, eta abar.

### **Prest gaude trantsizio horretarako?**

Ez gaude prest, baina ahalegina egin behar dugu, bestela inposatu egingo zaigu. Neurri batean aldaketa baten aurrean sartuta gaude, pobretze prozesu batean murgilduta gaude, eta bizitzaren garestitzearekin batera, gure kontsumo eredu ere aldatzen hasiak gara desazkunde baterantz. Beste eredu baterako trantsizioa bideratzeko, ezinbestekoa da gizartean adostasunak bilatzea, gure burua berramatzea eta gizartearen erdigunean beste helburu batzuk jartzea. Krisialditik modu duinean ateratzeko, nola nahi dugun bizi birpentsatu behar dugu, guztiontzat beharrezkoak diren ase beharrak zeintzuk diren, ondasunak nola banatzen diren, lanak, zaintza eta denbora,

gizartean erabakiak nork eta nola hartzen dituzten...

### **Zer iruditzen zaizue LPSak gure mendietan parke eolikoak jartzeko egindako proposamena?**

Ez ditugu LPSak aztertu, ez gara adituak horretan eta ez dugu gure eginkizun bezala hartzen. Baina iritzi bat ematearren, eta oker ez banago, LPSa ez dago bukatuta eta moldaketak izango ditu. Ziur nago planteatzen diren leku askotan ezingo direla horrelako proiektuak aurrera eraman, ezin baita soilik ekoizpena kontuan hartu, naturababesgunez gain korridore ekologikoak eta bestelako plan sektorialak ere integratu behar direlako. Bestelako eredu sozioekonomiko bat aldarrikatu nahi badugu, kontuan hartu behar ditugu zein lur erabiliko diren elikadurarako eta abeltzantzarako, zein basogintzarako, zein lur babestu behar diren interes handiko naturguneak direlako, zein industriarako... eta agian kontsumo energetikoa murrizteko plan sektoriala ere aldarrikatu beharko dugu. Plangintza integratzea aldarrikatzearen aldekoa naiz, modu ordenatuan, nahi eta behar dugun eraldaketa planteatzeko, trantsizio ekosozial baten bidean.

# Debabarreneko herritarren iritzia

GAIA GERTUTIK EZAGUTZEN DUTEN ESKUALDEKO HERRITARREN BERBAK



## ALAIN ULAZIA


ENERGIA BERRIZTAGARRIEN  
GRADUKO IRAKASLEA EHU-N

Irudikatu 40 elefanteko talde bat Usain Bolten abiadan korrika. Kuadrilla horrek duen potentzia xurgatzeko kapaz da gure super-

kontsumoa mutur parean ikustarazten digun haizerrota erraldoi bat. Nola ikusten duzu jendez hustutako Burgos, Nafarroa eta Aragoiko mendialdeak erraldoi hauekin josi eta gero honantz argindar kable potolo bat botatzea? Edo eskola aurkezpen batean ume batek esan zidana: "Ba! Zetako errota horrek, Espaini aldian zentral nuklear batzuk ipiñi eta lixto!". Aurrezpen energetiko nabarmena (adb. %50 2050erako) eta erabateko dekarbonizazioa premisatzat, dauden parkeak aprobetxatuta haizerrota modernoagoak ipintzeko, garraioa kolektibizatuta,

fotoboltaika eta eolika txiki-ertain komunitarioa erruz bultzatuta udalerrri mailan, eta mendi-goietan ura metatuko duten deposituak erabilia bateriatzat, erraldoi haue-tako oso gutxi beharko dira.

**"Eskolan ume batek esan zidana: Ba! Zetako errota horrek, Espaini aldian zentral nuklear bat ipiñi eta lixto!"**



## JUANKAR ANDRES

HEGAZTIZALEA ETA BLOGARIA

Trantsizio energetikoa premiazkoa da klima-larrialdia dela-eta, eta bat etorri behar da trantsizio ekologikoarekin. Esparru horretan, energia berriztagarriak oso garrantzitsuak izango dira epe motzean eta ertainean. Trantsizioa

eredugarria izan behar da, bai denboran bai forman, eta hura jasangarria dela bermatzeko, erabakigarria da "non" eta "noiz" aldaeren gainean hausnarketa egitea. Eolikoen garapenak errespetatu behar ditu ondare naturala eta bioaniztasuna, balio ekologiko handia duten espazioetatik kanpo geratu behar dira, eta jada degradatuta eta antropizatuta dauden inguruetan kokatu. Izan ere, parke eolikoek eragin negatiboak dituzte hegaztiengan, nabarmentzekoak: hegaztiak hiltzen dira haiek jota, hegaztien habitatak suntsitzen eta aldatzen dira, eta barrera-efektuak eta desplazamenduak sortzen dituzte, besteak beste.

Seo/BirdLifen azken txostenaren arabera, 6 eta 18 milioi hegazti artean hiltzen dira urtero parke eolikoetan. Nik neuk ikusi dut Oiz mendian eoliko baten pala sai bati kolpea eman, eta hegaoa apurtzen. Topatu ditut hilda miru gorriak, arrano sugezaleak eta saguzarrak, guzti-guztiak espezie babestuak direnak.

**"Nik neuk ikusi dut Oiz mendian eoliko baten pala sai bati kolpea eman, eta hegaoa apurtzen"**



**DANEL DE PRADO**ENERGIA BERRIZTAGARRIEN  
INGENIARIA

Debabarreanean energia berriztagarrien kuota areagotu beharra agerikoa da; hidraulikoak eta olatu-energiak osatzen dute (autokontsumoaz gain) 2,5 MWko potentzia instalatuko sorkuntza ahalmena, energia-menpekotasuna handia delarik.

Gaur egun, aerosorgailu bakar batek potentzia hau erraz hiru-

**"EAE n dugun energia defizitari aurre egiteko beste formula batzuk bilatu behar ditugu"**

koiztu lezake. Hala ere, paisaian duen eraginaz gain, parke eoliko baten azpiegiturak (sare elektrikoak, pista zabalak...) naturan duen eraginak munta handia du. Lautada eta mendi baxuen erliebean edo malkartsua den Debabarrenean eragin hau zeharo desberdina da. Gainera, betiko suntsitu litezke aisigune diren zenbait eremu (Kalamua eta Karakate, besteak beste).

Beraz, eskualdean eta, orokorrean, EAE n dugun energia defizitari aurre egiteko beste formula batzuk bilatu behar ditugu, arreta berezia eskainita eraginkortasunari.

**MIRIAN ARRIZABALAGA**BASERRITARRA ETA BIOLUR  
ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Mendietan parke eolikoak jartzeko asmoak entzutean, haiek jarri nahi diren lekura eramateko eta gero energia garraiatzeko egin behar diren apurketak etortzen zaizkit lehenik burura; fabrikaziorako beharrak batu beharko genituzke aurretik. Bigarren kolpean elikadurarekin egiten dut konparaketa, bi kasuetan kanpo dependentzia oso

**"Etengabeko aldaketan bizi gara, baina norantz eta nola aldatu nahi dugu?"**

handia dugu eta kontsumoan eta xahuketan, munduko batez beste-koekin alderatuta, gainetik gabiltza. Koktelak osagai gehiago ditu, baina datu batekin osatuko dut: azken bi hamarkadetan aurreko mende guztietan baino lur gehiago artifizializatu da eta bailararen industrializazio maila dugu horren adibide. Instalazioak egitekotan, lehenik eremu horietatik hasi beharko genuke. Elikatu ala konektatuta bizi? Lurra, ura, haizea eta eguzkia, jana eta energia; bi behar eta eskubide, jada gizartearen zati batek ase ezin dituenak. Etengabeko aldaketan bizi gara, baina norantz eta nola aldatu nahi dugu?

**DIEGO MENDOZA**DEBANATURAKO KIDEA, BIOLOGOA  
ETA INGURUMEN HEZITZAILEA

Debabarrenekoko energia berriztagarrien LPSaren aurrerapena dela eta, parke eolikoaren kopuru harri-garri batek mehatxatzen dituen gure mendien amaiera hori gure munduaren amaiera izango da. Ez dut esageratzen oso gai garrantzitsua dela esaten badut, beti gure askatasun, ezinegon eta ongizate amaigabearen arnas izan diren

**"Horrela harrikatu nahi dute betiko gure mendietako paisaia, benetan geratzen zaigun gauza bakarra"**

mendi horien gainean ezartzen den mehatxu horrek ezinezkoa egiten baitu oraindik ere hala izaten jarraitzea. Orain, betiko botere horiek, atzean izen berberak dituztenak, interes berberak dituztenak, oparotasun sakrosantuen izenean eta baliabideen krisi-egoera bati erantzungo dion trantsizio energetikoaren bandera faltsua goratuz, aurrekoak bezain kaltegarria den industria berri batekin aurkezten dira, energia berdeak deitzen dituztenekin, baina ez direnekin. Horrela harrikatu nahi dute betiko gure mendietako paisaia, benetan geratzen zaigun gauza bakarra.




**ISA PRIETO**  
GEOGRAFOA

Onartu behar dut ez dudala proiektua bere osotasunean ezagutzen, ezta xehetasun teknikoak ere. Nire printzipioetan oinarrituta, ezarri ditzakegun era guztietako energia berriztagarrien alde nago, gure energia-kontsumoaren on-dorioak murrizte aldera. Era be-rean, uste dut formula jasangarrien esparruan ezin direla aplikatu irtenbide-eredu berdinak beti, eta leku baterako egokia dena bali-

**"Ezarri ditzakegun era guztietako energia berriztagarrien alde nago"**

teke aproposa ez izatea beste leku baterako. Energia berriztagarrien kontsumo kooperatiba bateko kontsumitzailea naizen heinean, badakit ere argindarraren faktu-larik onena dela baliabideak opti-mizatzea, bai ekonomiari bai ingurumenari erreparatuta. Izan ere, energiaren larregizko prezioa-ren inguruan bolo-bolo dabilen eztabaidaren aurrean, galdera bat datorkit burura: gutxiago kontsu-mitu nahi dugu, ala bakarrik gu-txiago ordaindu?



**OIER ETXEBARRIA**  
GOIENER

Etorkizunean zein gizarte eta kontsumo eredu izango ditugun hausnartu beharra daukagu. Zenbat energia beharko dugun eta nola sortu nahi dugun ere erabaki behar dugu. Gaur egun kontsumitzen dugun guztia berriztagarriekin sortu ahal izango dugula pentsatzea ez da errealista. Lurralde, material eta denbora falta daukagu eta be-raz, energia beharrak asko gutxitu ezean, kaosa ziurtatuta dago.

**"Zenbat energia beharko dugun eta nola sortu nahi dugun erabaki behar dugu"**

Goienerren, bazkide boluntario eta langileek osatutako lantalde baten hausnarketa egiten ari gara eta energia berriztagarrien proiektuek sabai ekologikoa eta lurzoru etikoa errespetatzeko oinarriak zehazten ari gara. Goienerretik baldintza hauek proposatu dira: parte-hartze handia eta kalitatezkoa eskatzea, ezaugarri buruzko erabaki-ahalmen handia bermatzea herritarrei, kaltetutako herritarren onartzea, eragindako herritarrei onura eko-nomikoak ematea eta ingurumen-inpaktua aztertzea.



**IOSU AIZPURU**  
ENERGIAREN ARLOKO  
KOORDINATZAILEA MU-N

Energia berriztagarrien alde egin behar dugula ez dago dudarik. Hala ere, energia berriztagarriak instalatzerakoan gizartean, bizi-gunean eta naturan duen inpaktua baloratu behar da. Gure gizarteak biziko dituen erronka energetikoak berriztagarrien, autokontsumoaren eta efizientzia energetikoa handitzearen batura batekin lortu behar ditugu. Gure bizigunea den Debabarrenean

**"Haize gune egokiena izan arren agian ezin da parke eoliko bat egin"**

autokontsumoa sustatu eta energia berriztagarri eolikoa sustatzeko ikerketa eta informazio gehiago behar dugu. Erabiltzaile gisa, proiektu desberdinen lokalizazio, diseinu eta kokapenaren erabakiekiko informazio eskasa nabaritzen dugu, eta horrek mesfidantza sortzen du. Bukatzeko, ezin dugu ahaztu naturan izan dezakeen eragina. Hai-ze gune egokiena izan arren, agian, ezin da parke eoliko bat egin. Parke eolikoak bai, baina ez no-lanahi.

# Iñaki Goikoetxea Real Unioneko entrenatzaile izendatu dute



Iñaki Goikoetxea, Irungo Stadium Gal-en. REAL UNION

Iñaki Goikoetxeak Real Unionen gizonetzkoen lehen taldearen gidaritza hartu du. Denboraldi amaierara arte entrenatuko du taldea, klubeko administrazio kontseiluak martxoaren 15ean David Movilla kargugabetu ondoren.

Kargua ezaguna zaio debarrari; lehen taldearen ardura ere izan zuen jardunaldi batez, klubak Aitor Zulaika kargutik kendu eta ordezkoa bilatu artean. Zehazki, denboraldian kargu hori hartu duen hirugarren prestatzailea da; aurretik, Aitor Zulaika eta kargutik kendu berri duten David Movilla egon ziren Stadium Gal-eko aulkian.

Talde irundarra bolada txarra igarotzen ari da, eta mailari eustea izango da debarraren eta harekin

batera lantalde teknikoa osatuko duten Ricardo Costaren, Ibon Zoiloren eta Ivan Curielen egiteko nagusia. Talde zuri-beltza jaitziera postuetan dago egun eta, salbazio postuetatik gertu badaude ere, beheko postuetatik burua altxa ezinda jarraitzen dute. Debarrak adierazitakoaren arabera, erronka berriari aurre egiteko "gogoz" dago. "Erronka gogorra da aurretik duguna, baina gogotsu eta lasai gaude", esan zuen aurkezpenean.

Ondo baino hobeto ezagutzen du kluba. Jokalari modura, taldearen garairik "loriatuenaren" lekuko izan zen eta, 2015-2018 artean, taldeko bigarren entrenatzaile modura ere aritu zen. 2022ko udan bueltatu zen klubera, analisi saila indartzeko.

## 'Bost Izarreko Kirolariak' saria jaso du Bitor Garitaonandiak

Bitor Garitaonandia surflari debarra Diario Vascok banatzen dituen *Bost Izarreko Kirolariak* (Deportistas 5 Estrellas) sarien galan saritu dute. Esker onez jaso zuen Promesa Mailako Gizonezko Kirolari Onenaren Saria. "Eskerrak eman nahi dizkiet nire alboan dauden guztiei; irabazi ala galdu, beti hor daudelako", adierazi zuen martxoaren 20an egindako ekitaldian.

Garitaonandiarekin batera, kirolean erreferente diren beste hainbat norbanako eta talde ere saritu zituzten: Miguel Indurain, Abraham Olano, Marino Lejarreta eta Miguel Mari Lasa txirrindulari ohiak eta Julen Aginagalde, Nahia Zudaire, Touring Kirol Elkarteak, Ur Kirolak, Ordiziako Klasika, Zuhaitz Gurrutxaga, Annette Gonzalez, Nahia Garrido eta Sara Alonso.



Bitor Garitaonandia Paula Velarderekin batera saria eskuetan. BG

**Torrealday**

**AHOLKULARITZA  
LIDERRA,  
TOKIKO  
ARIMAREKIN**

ZERGA, LAN ETA  
KONTABILITATE  
AHOLKULARITZA

ONDARROA - 94 683 29 75  
ERMUA - 94 317 44 35  
Eta beste herri batzuetan.  
[www.torrealday.es](http://www.torrealday.es)

**Berriketan .eus**

parte hartu  
parte izan

**MAIEDER** Eider Sampayo  
horts klinika Maialen Linazasoro

Implanteak eta kirurgia  
Periodontzia · Endodontzia  
Estetika eta zuriketak  
Protesiak · Odontopediatria  
Azido hialuronikoa  
Aho-aurpegi eta ATM alterazioak

**Zarautz**  
Kale Nagusia 9-1  
943 13 32 69  
722 81 56 60  
dental@maieder.com  
[www.maieder.com](http://www.maieder.com)

# Martxoa / Apirila

## MAR. 31 (OSTIRALA)

### BILERA IREKIA

**19:00** San Roke jaietako kontzertuak antolatzeko. Ispiluen gela.

### ELKARRETARATZEA

**19:30** Euskal preso eta iheslariaren giza eskubideen alde. Foruen Plaza.

### KULTUREKIN

**22:00** Kontzertua: Xahu + Jazz jam session. Sarrera: doan. Kultur Elkarte.

## API. 1 (LARUNBATA)

### MERKATU TXIKIA

**09:00** Paseo estalia.

### LIBURU AURKEZPENEA

**11:00** 'Gureak ere badira: desira, boterea, epika'. Arrano Elkarteak antolatuta. Ispiluen gela.

### DANTZAREN NAZIOARTEKO EGUNA

**12:30** Barra klasikoaren erakustaldia, Kulunkaren eskutik. Ibaiko pasealekua.



### KONTZERTUA

**13:00** Debako Musika Banda. Elizako klaustroan.

## API. 2 (IGANDEA)

### TALO EGUNA

**12:30** Egitarau berezia. Lastur.

### ZINEMA

**16:30** 'Ilargirantz' umeentzako filma. Zubi Guraso Elkartearen eskutik. Kultur Elkarte.

**19:00** Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

## API. 3 (ASTELEHENA)

### PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

**12:00** Foruen Plaza.

## API. 12 (ASTEAZKENA)

### UDABERRIKO OPORRALDIA

**09:30** Irteera edo tailerrak. Kolore Anitzen eskutik.

## API. 15 (LARUNBATA)

### TXIRRINDULARITZA

**10:00** (Jubencil mailakoak). Amaiak Batek antolatuta. Foruen Plazatik hasita.

## API. 16 (IGANDEA)

### ZINEMA

**19:00** Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

## API. 17 (ASTELEHENA)

### PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

**12:00** Foruen Plaza.

## API. 20 (OSTEGUNA)

### KONTZERTUA

**14:00** Musika eskolako kideak, LHkoentzat. Luzaro.

## API. 21 (OSTIRALA)

### LITERATUR SARI BANAKETAK

**11:00** III. Ipuin eta ilustrazio lehiaketa. Udaletxea.

**19:00** 'Deba ehun hitzetan'. Kultur Elkarte.



## API. 22 (LARUNBATA)

### IRTEERA GIDATUA

**11:00** Sakoneta. Erreserbak: [geoparkea.eus](http://geoparkea.eus)

### LIBURUAREN EGUNA

**11:00** Mikrofono irekia, bermut literarioa eta liburu azoka. Kultur Elkarte.

### KULTUREKIN

**22:00** Kontzertua: Ruper Ordorika. Sarrera: 10€. Kultur Elkarte.



## API. 23 (IGANDEA)

### TXIRRINDULARITZA

**08:00** (Zikloturistak). Foruen Plazatik hasita.

### IRTEERA GIDATUA

**12:15** Santa Maria eliza. Erreserbak: [geoparkea.eus](http://geoparkea.eus)

### IPIUIN KONTAKETA

**17:30** Debako kontalariaren eskutik. Ispiluen gela.

### ZINEMA

**19:00** Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

## API. 25 (ASTEARTEA)

### IRAKURKETA KLUBA

**19:00** 'Tea Rooms' (Luisa Carnés). Ostolaza Udal Liburutegia.

### ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

**BURGOA ZUAZO** apirilak 7, 8, 9, 17, 18, 19, 20.

**ZALDUEGI** apirilak 3, 4, 5, 6, 21, 22, 23.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

### DEBAKO BOTIKAK

**ZALDUEGI** 669 26 22 01  
**BURGOA ZUAZO** 667 33 88 90

Larunbat goizetan beti bat irekita:

**BURGOA ZUAZO**  
apirilak 1, 8 eta 29  
**ZALDUEGI**  
apirilak 15 eta 22

## Jarraitu gaitzazu!

[berriketan.eus](http://berriketan.eus)

Zuhatza Euskara Elkarte



### HURRENGO HITZORDUAK



[berriketan.eus/agenda](http://berriketan.eus/agenda)

### IRAGARRI ZURE EKIMENA

Ekimenen bat iragarri nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan apirilaren 21a baino lehen.  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
 943 19 13 83

### Telefono jakingarriak

Zuhatza Euskara Elkarte	943 19 13 83	Haur Eskola	943 19 20 81
Debako Udala	943 19 28 40	Luzaro (Ifar kalea, HH)	943 89 91 55
Itziarko Auzo Udala	943 19 92 55	Luzaro (Itziarko bidea, LH)	943 89 91 54
Udaltzaingoa	689 12 58 89	Luzaro (Itziar, HH)	943 89 93 27
Bake epaitegia	943 19 23 53	Luzaro (Itziar, LH)	943 19 93 06
Eguneko Zentroa	943 19 29 33	Mendata BHI	943 89 92 65
Turismo Bulegoa	943 19 24 52	Deba Musikal	943 19 20 16
Ostolaza Udal Liburutegia	943 19 25 60	Helduen Heziketa Iraunkorra	943 19 21 76
Kiroldegia	943 19 22 62	Debabe Euskaltegia	943 19 22 36
Ertzaintza (Eibar)	943 53 17 00	KZgunea	943 02 36 29
Osasun zentroa (Deba)	943 19 24 24	Gaztelekua	943 19 27 62
Osasun zentroa (Itziar)	943 19 90 42	Landi	945 16 06 00
Itziarko Botikina	687 75 67 21	Correos	943 19 17 99
Botika - A. Zalduegi	669 26 22 01	Mankomunitatea	943 70 07 99
Botika - Burgoa Zuazo	667 33 88 90	Ur Zerbitzuak	943 60 80 02
Gurutze Gorria	943 19 10 32	Debegesa	943 82 01 10
DYA Larrialdiak (Gip.)	943 46 46 22	Euskotren	944 33 33 33
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Lurraldebus	900 30 03 40
Eibarko Ospitalea	943 44 90 00	Debako Parrokia	943 19 14 97
Donostiako Ospitalea	943 00 70 00	Itziarko Parrokia	943 19 93 04

**Uzuri**  
optika audio



RPS-183/12

**PILARIK GABEKO  
AUDIFONOAK  
PROBATU  
HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,  
20820 Deba  
Tel: 943 19 21 92



**Deba**  
Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20  
20820 Deba, Gipuzkoa

[info@debaklinika.com](mailto:info@debaklinika.com)  
T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra  
Kirurgia  
Implanteak  
Ortodontzia tradizionala  
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)  
Haurren odontologia

\* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

**sasoiko**

ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

#### ZERBITZUAK:


\* Fisioterapia - Osteopatia  
\* Gimnasia hipopresiboak

\* Podologia  
\* Dietista

Lersundi, 14

943 19 24 42

[sasoiko@hotmail.com](mailto:sasoiko@hotmail.com)



Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

# Deba-Itziar BIRA



## OTSAILEKO SARIIDUNAK

- 1. Saria:**  
Iera Zubikarai
- 2. Saria:**  
Mari Mar Cabeza, Eneritz Tambo

## OTSAILEKO ERANTZUN ZUZENAK

- 1 > Barruko paisaiak  
2 > Isaak Arrizabalaga  
3 > 60 kiloko meroa
- 4 > Zozoa  
5 > Maddi Astigarraga  
6 > Astuna



1 > Zein izan zen Kooperazio Taldeak martxan jarritako lehen proiektua?



2 > Zein da ezkerreko argazkian agertzen den animalia?

- a) Erbinudea  
b) Igaraba  
d) Basakatua  
e) Katajineta



3 > Zein da Kultur Elkartean sortu den podcast egitasmo berriaren izena?



4 > Zein da Astillero kalearen hasieran dagoen dorretxearen jatorrizko izena?

- a) Sasiola Dorrea  
b) Alostorrea  
d) Zarautz Dorrea  
e) Arteaga Dorrea



5 > Zein da Jose Oñederra eta Joxe Makazaga trikitilarien izen artistikoa?



6 > Nor da Maxpe pasealekuan dagoen Mendieta eskulturaren egilea?

- a) Tomas Ugartemendia  
b) Willy Berasaluze  
d) Ramon Beitia  
e) Guillermo Andonegi

## MARTXOKO BIRA

**Parte hartzeko:** [www.labur.eus/bira\\_martxo](http://www.labur.eus/bira_martxo)  
**Erantzunak bidaltzeko azken eguna:** apirilak 14  
Irabazleen izenak datorren alean argitaratuko dira.  
Animatu eta parte hartu!

## SARIAK

- Erantzun gehien asmatzen dituztenen artean **Katxalote arropa markako 50 euroko hiru bono** banatuko dira.
- Parte hartzaile guztien artean **Katxalote arropa markako telazko hamabost poltsa** banatuko dira.

**Mikel ITURGINTZA**

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO ETA BERRIZTAGARRIAK

Hondartza 10 behea,  
20820 Deba

T. 943 191 774  
M. 699 975 206  
[info@mikeliturgintza.eus](mailto:info@mikeliturgintza.eus)

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27  
943 19 14 47  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

**Calbeton**  
JATETXEA

**Agustín Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ENGLISH SQUARE**

SCHOOL OF ENGLISH

INGELES AKADEMIA

Sokagin kalea 12, DEBA  
648 268 206  
[info@english-square.net](mailto:info@english-square.net)

Batxilergoaren  
aurrematrikulazio datak:  
**martxoaren 27tik**  
**apirilaren 21era arte**

Artistiko musikala  
Zientziak eta Osasuna  
Zientziak eta Teknika  
Humanitateak  
Gizarte zientziak



 943 89 93 16

 [www.elgoibarbhi.eus](http://www.elgoibarbhi.eus)

 [013431aa@hezkuntza.net](mailto:013431aa@hezkuntza.net)



CONSERVAS  
**YURRITA**

1867

GASTRONOMIKA

BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALEN  
ZUZENeko ETA ONLINE SALMENTA



Zuzeneko salmentaren ohiko ordutegia:  
Astelehenetik-ostiralera 10:00-14:00.



Online salmenta:  
[www.yurritagastronomika.com](http://www.yurritagastronomika.com)



ASTE SANTUA  
Apirilak 8 10:00-14:00



sarean edota dendan erosteagatik

**% 20ko deskontua**

kupoi hau aurkeztuz

**ZUZENeko SALMENTAN**

50€tik gorako erosketetan  
apirilean zehar erabilgarri.

**ONLINE SALMENTAN**

50€tik gorako erosketetan  
ondorengo kupoia sartuz:  
**BERRILAGUN**